


zeruko ARGIA

IDAZKOLA TA BANAKOLA: OKENDO, 22 - SAN SEBASTIAN - TEL. 26666 PREZIOA 4 PEZETA

LEZO-KO KAI-BARRUAREN GORABIDE NABARIA



Arrantzako ontzietzat kilometrotik gorako kaiak

Azkenengo aste auetako berriak garrantzitsuenak, Pasai'ko Lanen Batzordeak eman dizkiguenak. Ango Kai-eko Lan-Batzordea bete-betean bildu berri baita. Billera orretan onartua izan da, datorren urteko lanen Gastu-neurria: Oraingo eragiketa aukerak alde aundia dakarte aurrekoarekin. Eta aurretan agiri da, oraingo gastuak amasei milioi pezeta geiago izango dirala, galdutan.

Gastu-neurriak berreun da irurongi ta lau milioitaraino jotzen du. Eragiketa aukerak ikaragarriak dirudite; baiña lendik datozenen mailakoak dira. Aurtengoak, urrutirago joateke, irureun da berrogei ta amasei milioitaraino igo baitziran.

(4'garren orrialdean jarraitzen du)

EUSKALTZAINDIA BILDUTA

Abenduko Billera, ilaren 26'garrenean egin uan gure Euskaltzaindiak. Bete bezela, ototz laburrez asiera eman genion jardunaldiari, Lekuona'tar Manuel apaiz jauna buru ta San Martin idazkari zizala.

Aurrenengo kontua, aurreko illeko Bil-agiria onartzea izan zan. Emendik aurrera, gauzak zeatzagoko jartzearen, eta ezer aitatuko Billarako agiria onartzen dan arte, Onela, Abenduko Batzararen berri, Urtarrilleko (Ilbel-tzeko). Billera ondoren emango degu.

Joan dan illeko berri-ematean, okertxo bat joan zitzaigun. «LUR» taldeak Euskaltzaindiari liburuak eskaini ziola. Liburuak, genionez, Satrustegi, Berrondo, ta Aingeru Irigarai'k egin zan. Gauzak bere lekuan uzteko, liburuak Irigarai jaunak prestatua izan dela, esan bearrean gaude.

Ta emen bukatu bear genduko, billeraren berri emateko lanxo uan. Joan dan illeko Billera-berri emanak bai-kera lengo illean; baiña besterik ezean, aiatu diran gaiak. Zeatzagoko berriak, urrengo illean esango ditugu.

Aurrena, Euskaltzaindiak Azuke zanaren idazlanetan duan jabetasuna garbitu zan. Bilduko San Martin eta beste bildu batzuen esanak entzun genituan.

Urrengo, EUSKERA aldizkariaren prezioaz zorbait alderazi zuan Lizundia jaunak.

Lendakariak gogora ekarri zuan udaberriz, naiz Udal-dian egiteko degun «SYMPOSIUM» Naparroako Uri-bu-ruan. Ortarako, katalan eta gallegoekin bilduko gera, gure izkuntzen onerako neurri batzuekin erabakitzeo. Izen-datua dagoen Batzordeak antolatuko du bear dana.

Euskal-Leiaketetan, sari aundiagoak jartzea komeni ote-zan ere, galdetu zuten.

Arabarren izenean Urrestarazu Luis jaunak ongi-eto-ria eskeini zien bildu guziet. Ongietorria egin genion gure aldetik. Euskaltzain berriek ere gure ongi-eto-ria egin ta bukatu zan Billera.

NUN-ZER

- **BANDOKERIAK**
 - Gitarki-k 3-gnan.
- **1970-erako MIRARIAK**
 - Gaztania-g' 3-gnan.
- **EUROPA, OSTETIK**
 - Beiztegi-k 4-gnan.
- **ITALIAKO GORABEHARA GOGORRAK**
 - Lortxundi-k 5-gnan.
- **ELEIZA URTEAREN MUGAN**
 - Muxika-k 6-gnan.
- **GAZTEAK ETA ORAINGO MUSIKA**
 - Barrenetxea-k 11-gnan.
- **ERRI ARAZOETAN GORENGO GU**
 - Kosmoaga-k 12-gnan.
- **LIBURU BI**
 - Arteche-k 12-gnan.

IKASTOLAK

ZER DA ESKOLA

ETA ZERTARAKO?

Zenbait gauza egin oi ditu gizonak, aldiz gauzarik nagusiarenak, ez jakitean eta oihuraren poderioz. Bildur naitz gauza auetako bat ez ote dan eskolarajotzea.

Eskualde edo rejio batean, konkretori, "gaur eta emen", Euskal-Erriari, zer eta zertarako da eskola.

Lenengo, eskola kutxa bat da, gordeleku bat, soziedadaren dauden edo dabilzan balore, ideia eta beste orreko gordairu askoen kutxa eta gordeleku. Ez ordea kutxa eta gordeleku bakarrik eta soilki.

Baita ere eta batipat, eskola indar aurrelari bat da, soziedadak, bere historiaren argitean, bide berriak aurkitu dezan.

Nolaz eratuta edo moldatuta egon bear du eskola? Galdera oni ezin erantzun, aurrez ikusi eta aztertu gabe kulturalki ze estruktura daukan eskola finkatuta dagon eskualde edo rejioak.

Adibidez, guk, euskaldunok bi kultura ditugu, izatez ez ba da bi-izteaz, bi izkuntza, bi pentsakera edo mentalidade.

Derriorez, eskolak ere bi kultura eta bi izkuntza ibili bear ditu, bere barnean, ez, noski, naastuak eta debona berean, bata bestearen ondoren baitzik. Lenengo ama-izkuntza osoki jasoz, gero gaur ofizial izkuntza dana irakastaz.

GIPIZKOAK. ISPILLU

ETA EREDU

Ondo eta zutik gelditu bedi auxer: Ikastolak ez dirala euskal-eskolak soilki, baita ere eta batipat "bi izkuntzetako eskolak".

Kultura osoko etagarbiko Eskolak. Amerikaren, sakonki, finkatuak. Ez da, ez, gure eskolatan, besterik entzuten, abesti soñua baitzik; bere leio alaietatik beste ezer ikusten, gure mendi urdin eta itzaltuak ez dirala; edo Kantauriko itxasua, aldiz pakean, aldiz asarratua. orain aparrez zuri, gero musker, arratsaldean moratua dan gure itxaso txar-magarria.

Jantxe ikasten dute gure erriko aurak nolaz mintzo eta nolaz abestu, jolaz egiten eta zientifikoki pentsatzen duten guzti ura errez eta musikalki mintzatzen. jErri baten promes eta etorkizun diran umeak!

Araba, Bizkai ta Nafarro onutz

begira. Izan ere, Izkuntzaren ispi-llu, eredu eta lege Gipuzkoa izan oi da beti.

ANDERENO ETA TEKNIKA

Ikastola guztiak ederkir apainduak. Mendi eta baso arnasa (Aitor zarraren mintzoa ikasten dutenez) barnean dutela. Sarrerari, egur basatia, gizonaren eskua ezagutzen ez dun egurra, argiaren beso. Belar gozo eta landarak edergarri gisa. Arto gorri eta gari melarrak.

Garai bat izan zan aurrak, indarrez, gogo txarretik, joaten zirana eskolara. Gaur ordea ez orrela. Or dijoaz, karrika zear, elurrerako komandos jantziak, illeko oiñetakin saltoka eta kantari.

Nik ez dakit nungo sorginak edo azitak dabilzen gure ikastoleetan. Baita egia bakarria auzo da: aurrak pozik dijoazela eskolara.

Gero, andereñoa, ume artean, be-ro eta gertu eta kide aaztzen da. Geienetan esku biguñekoa, ama gozoa ezalile egokia.

Ipui zaarretako lamiña ongilleak dirudite.

Andereño gazteak, alde batetik. Teknika berriak, bestetik.

Zer geiago bear dute gure Ikastolak inungo aldetik? Bide bezela beintzat.

Ordea ez degu esan nai zer egitekorik ez dagonik. Ba dago, ta asko eta larria.

ESPERIENTZI BERRI

BATEN BILLA

Geroari begira, gebien aurrean dauzkagu frutu edo arnariak. El-duak asko, urrearen margokoa.

Erdibitua dagon gure soziedadak osotasun eta berdintasun bat lortzen ari da, eskola oso eta "integral" auzen bidez.

Aurraren adimena askoz jantzi-agoa ta zabalgasoa izango da, bi izkuntzaren aberastasunarekin ormitua.

Azkenik, Villar Palasi'k ere zerbait zorko digu. Libro Blanco deritzon artu dauden zenbait asmo, gure Ikastoleetan esperientzi frogatuak daude, gero ofizialki lege izango diran asmoak alegia.

jUrte berri on!

JOSE LASA

BERTSO BERRIAK

Emari'ko Arruarte'k bederatz puntuko bertsoak moldatu ditu. Jende guziaren aotan dabillen gizon batek eman dio ortarako argibidea: Urtain'ek.

Donosti'ko Segundo Kalonje jaunak ere biall digu beste bertso mordo txo bat Urtain' buri. Danak azalduko dira.

Bolarak izaten dira.

Aldi ontan bertso asko irixten zaigu, ta txandaren zal egon bear.

Artu pazientzi pixkat, argia denboraz ikusiko dute-ta.

— 1 —

Aizak, Urtain, ez ago eskutatik mago, bestela bozeotik ez ukek jango. Baña danak konporme ezituz izango azpian pixeken bat or ez al da izango? emengo ta ango jakin dizkit ondo, ta lengoak lengo berriz ez nauk jungo asperutu nauk ikusten oinbeste «tongo».

— 2 —

Zer famak dakazkiren ik Euskalerria, txoraturikan zeudek danak begira. Ire mutur ezurrik ifiork ezin jira sei dirantzeko zeukagu kupira; i agon tokira zein igotzen dira? daukaten segira bagendu erdira, ez nindukek juango ni illargira.

— 3 —

Ikusiko duenak ire bozeua bixta ezitk bearko nolanakia. Lau segundo baño len igual lura jua iritxi zaloleko begindokua; i pasata ua azkarrenen muga ta jakitekua zeukagu gogua, zenbat kobratzen deken ordu kontua.

— 4 —

Uzkudun'en aukian i al aute jarri? ordezko bat oberik ezin ekarri. Atzetikan segika asko erri-erri baña zer pizti aizen liri norik lgerri? zuri, beltz ta ori txiki eta larri or zebiltzak larri lura juaz sarri, askok izango aute goguangarri.

— 5 —

Oraifartean ire aurka zebiltzanak azkeneko dituk amor emanak. Eue izerdialkin artu dituk famak doai apartekoa egin indun amak; artutako lanak surez begiz janak lurrean etzanek oraifarte danak, berriz arrixkatzen dik etortzen danak.

— 6 —

Arruan azaldua ire arabia, txoraturikan zeudek danak begira. Ire mutur ezurrik ifiork ezin jira sei dirantzeko zeukagu kupira; i agon tokira zein igotzen dira? daukaten segira bagendu erdira, ez nindukek juango ni illargira.

— 7 —

Errenkadan botea dek ogeigarrena, marka arigarria jarri dekena. Zeñiek ausartu blaik irekin urrena? «tongo» egin lezakek al dun azkarrena; probarik onena ire indarra Europa terrena sartzea barrena, ia munduan jartzen aizen aurrea.

ARRUAETE
Emari

OARRA:

Ogeigarrena jokatu ondoren moldatu zitun egilloak bertso auk. Baderute geroztikako berri.



Eraria epela dagola?

FAGOR'ek ezutuko du berola

Eskeini zure auzokoari, zure adiskideari, zure erriko bati, ZERUKO ARGIA-ren arpide-oparia. Moztu arpide - txartelaren zatia, eta itzuli iguzu beteta.

1970-ko arpide-saria bialdu «ZERUKO ARGIA-ra»
Okendo, 22 — DONOSTIA

NAI BADUZU, JAKINERAZIKO
DIOGU ZUK ESKEINITAKO
OPARIA DALA

NERE BORDATXOTIK

Abendua'ren emeretzigarrena. Ostiral gaba.

Madrid'ko Deporte Jauregian, lura jo bearra izan zun Urtain'en ogetaitararren kontrarioak.

Asi ta buka, beste minutu exkak pasa zitun Ibañarieta'ko indartsuak.

Eta, oraingo ontan —au da arrigarria— danak txundituta utzi ditu.

Bukatu dira erabat tongo otsak erosketak kontuak eta gañontzeko berriketak.

Len ainbat zalantza erabilitakoak, eta Urtain'engatik ainbat tentekeri idatizitako periodistak, «fenomeno» bat dala aitortzen asi dira orain.

Bazan ordu, jaunak!

Ni seguru nengon luzaro baño len mirari au gertatuko zala: Urtain'ek danak bereganatuko zituela.

Orainxe egiten ari dan bizimodu egitea naikoa du ortarako.

Ez pentsa gero ostiral gabeko kontrarioa edozein zanik.

Urtain'en ondoin gaizki ematen zun askoz gutxiago zalako, baña ikusi nai nuke ura emengo on uskelo bozealari batzuren kontra jarria.

Buze izeneko beltza ere, eun da zortzi kiloko gizona, «pakete» bat izan zun Urtain'en kontra jokatu zunean.

Andik egun gutxira, zer gertatu zan?

Canal, Espaini'ko txapelduna, aizeak orbelat bezela erabili zula. Arnasik artzen etziola utzi; oso segundo gutxian egin zitula lan danak.

Urtain'entzat sin txarra zana.

Canal'entzat onegia gertatu.

Zer diote orain indarrak bozeorako etzula balio ziotenak?

Indarrak ideki-erazi dizkio munduko ate danak Urtain'.

Bai, enetxoak, bai.

Nueva Yor'ko Madison Square Garden'dik ere ba-ditu delak Urtain'ek.

An ikusi nai luteke mundu guztitik. Atzetik darabizki ango ordezkarria.

Aruntza joan bearrean izango da, itxurak diranean.

Toki artan ezta izen gabeko ta sora gabeko bozealariak ametitzen. An burrukatzeko oso ona izan bear, nai ta ez.

Ango atek itxiak daude kaxkarrentzat eta erdipurdikoentzat.

Eta, gaur, Norteamerika'n ere, Urtain'en izena dabil jendearen aotan.

Zer arraio ote da, galdetzen dute an, ogetaitu burruka jokatu ta ogetaitu kontrarioak «zerrald» utzi ditun gizon ori?

Ba-dira gure artean euskaldun zenbait era ontan mintzaten diranak:

Alegia, Urtain'ek menderatu ditu ogetaitu gizon oiek izenik eta istoririk gabeko bozealariak dira; on aietakoko aurrean jartzen dizkatenean izango dirala komeri latzak.

Nik au galdetzen det nere aldetik:

Oraindik egun asko etzala jokatu da Europa'ko bozeo txapel-

keta pixu astunetan. Weiland alemana gelditu da Europa'ko nagusi ta txapeldun.

Zeñiek ezagutzen du gure artean Weiland aleman onen istoririk?

Ta zeñiek, bere kontra jokatu zan frantzesaren goraberririk?

Zer izen eta zer fama zuten bi gizon oiek?

Nere galdera oni erantzuten ifiork ezta asmatzen.

Orra or, beraz, ifiork gutxi ezagutzen zun bozealari bat Europa'ko txapeldun bihurturik.

Urtain, alaxe merezi ere-ta, nai dun aia diru irabazten ari da.

Urtain da, konparazio gabe, Europa'n gela gogorak dan bozealari, baña bera da, bide batez, bozealariak merkena.

Jokatzen dun tokian jokatzen dula, jendea gañezka beti; tokirik ezta.

Ostiral gabean txikiiki gertatu zan Madrid'ko Deporte jauregia.

Urtain'ek bakarrik egiten du mirari au.

Orain leister, nere iritzi, dirua alde bat utzita, tituloak ekartzen asi bear du gure gizonak.

Ba-diteke ni oker egotea, ta aitortuko det alakorik balitz, baña Espaini'ko ta Europa'ko tituloa denboraz bereganatuko ditu.

Len alakorik inolako moduz pentsatzen etzutenak, Madrid'ko azken burruka ezkerko osoro al duta dira pentsamentuz.

Batek baño gela gogor aitortu ditate auxe. Aitortzen asi dira gilozki or ba-dagola gaia ta mutila oso urrutira joan ditekela.

Berandutxo izanarren, aitortek-ta jatorra egiten dun gizonari eztago zer esanik.

Beste batzuk, asierako setari eldu nairik, ez tute bururik makurtu naiko.

Or konpon beran aldetik!

Ekubide osoa dute nai duten bezela pentsatzeko.

Abendua'ren 21'garren eguna; Santo Tomas eguna.

Auzez ankargatuta ere ezin denbora oberik egin. Udaberriko giroa zirudun.

Orretxi esker, Azpelti'ko zezzen plazak ia gañez egn zun.

Utsa palta zan bete zala esateko. Oso gutxitan ezagutu dira Azpelti'n alako jendetzak.

Azpelti'rrak gizonik erantzun zuten. Nola ez, «Agerre» zana bertakoa izanik, eta ain maitea zutelarik.

Aren alargunak eta aren familiak ez tute ifioz azutuko jendearen portamena.

Azpelti'arrez kanpo, Gipuzkoa ta Bizkai'ko euskal deportezale asko agurtu gendun zezzen plazan.

Jalidia berriz ortik onerakoa! Ikusizun asko, baña ikusizun laburak, neurrikoa. Bat bukatu orduko bestea asi.

An etzan inor asperitu; an etzan inor gogaitu. Buruz jokatu ezkerko oso erreka da au egiten. Gure jendea jende ona da; ezta muxiña ta kontentagaitza.

Aizkolariaren eman zuten asiera. Azpelti'ko «Arria» anaia jokatu

tu ziran Mendaro'ko «Kortaberri» anaian aurka.

Lana: amarna kana-erdiok alde bakoizetik, nai zutenean txandatu.

Minutu biren bentaja eman zieten «Arriatarrak» «Kortaberri»-reri.

Bolar batean ba-zirudin ganean zituztela ta ezpaltiarrik nagusituko zirala. Etzuten etsi ordea mendarorak. Azkenean berak ederbegira.

Amar kana-erdiokoren kontu, «Kortaberri» anaia, 24 minutu ta 15 segundoan eman zuten.

«Arria» anaia 25 minutu, juxtu-juxtu.

Gogoa izan bi minutu geroago asi zirala lanean.

«Uategiela» anaia ikusi genitun gero Ostolaza ta «Irunaso'ko» osatutako bikotearren kontra.

Izendatuta zeukaten lana: 100 kiloko arri zildirora egn aldiz zein bikotek jaso denbora gutxiagoan, nai zutenean txandatu.

«Uategiela» anaia 5 minutu ta 54 segundoan eman zituzten eun jasoaldi.

Ostolaza ta «Irunaso'ko», 6 minutu ta 3 segundoan.

Astiasu'ko Iruzu ta Añeñ'go Aierbe iru kilometroko bidean neurtu ziran.

Iruzu irabazten, 9 minutu ta 47 segundoan.

Aierbe'k, lan berean, 9 minutu ta 53 segundoan bear izan zitun.

Gero, «Arretxa» bizkaitararen ofizialdia. Molde zarreko eun kiloko zildirorarekin egn zun lana.

Esku bakarrarekin baliatuz, amar jasoaldi eman zizkion minutu batean. Zortzi jasoaldi izan ziran legezkoak: beste biak txartat eman zitzaizkion.

«Sore» zarraren txanda.

162 kilo ta erdiok arri erretan gulara aukeratu zun. Minutuan host jasoaldi eman zizkion, argi ta garbi.

Atxaga berriz, 188 kiloko erretangularrak jasotzeko asmoz joan zun.

Bete zun bere naia. Bein bakarrak jasota etzan konpormatu; bigarren jasoaldi eman zion propiñatuz.

Ereri bear zala zirudin Azpelti'ko plazak. Alek txaloak entzun zituzten bi zarrek. Adin (edade) ta berdiñekoak dira «Sore» ta Atxaga. Berrogeitalauna erri dituzte.

Sorazu azpeltiar gazteak etzun izan azaltzerik. Osaba bat iliztaion eta gorputza eraman bearra izan zun.

Iragarria (anuntziatua) zegoen «Endañeta» sonatua ere. Zer motibio izan zun eztaik, baña etzan inoartu plazara.

Bertsu sakon, giartsuak kantatu zituzten «Uztapide», Lasarte, «Lazkao-txiki», Lizaso, Agirre ta Lazkao'ko «Agerre» zanaren orimenez.

Santo Tomas goizeko zortzitan telefono txiliña entzun nun etxean.

Gizon bat nun deika Zeuta'ko puntatik.

Don Pedro Azkoitia jauna, Urruztil'go semea, Zeuta'n komertziantz ospea dana.

Nere izonean —esan zidan— eman bosteun peza «Agerre» zanaren familiari.

Pozik bete nun eginkizun auxe. Azkoitia jauna ta Azpelti'ko jaialdira azaldutako euskaldun danak biotz zabala azaldu zuten.

Egintzetan ezagutzen gera gizonok. Itzak aizeak eramaten ditu. Karidada, eglea, komeri, zan egun artan, eta bai egn erri.

«Agerre» zanaren familiaren izenean nik, ZERUKO ARGIA onen bitartez, milloika bat esker guziari.

Denborarekin suete ikaragarria izan zala aitortu bearra da go.

Asko mozdutako ekaitzaldi bat gertatu balitz (neguan arizitoke etzanez), bildu zan jendearen erdirik etzan bilduko.

Asmorik onenak izanarren, giro txarrak atzera eragiten du.

Bestalde, danok ez gera osasun berdiñekoak. Otzetan eta bustitan egoteko ezta edozeñik balio izaten.

BASARRI

ARPIDE BERRIEN IZEN-ABIZENAK

1. Izen-abizenak

Zuzenbidea

Erria (Prob.)

2. Izen-abizenak

Zuzenbidea

Erria (Prob.)

ARPIDE-OPARIA EGITEN DUANAREN IZEN-ABIZENAK

Izen-abizenak

Zuzenbidea

Erria (Prob.)

Bialdu iguzu Pezeta. 1970-rako

Bankuko-txekez — jiro postalez — Letra-bialduz — ZERUKO ARGIA-ren izenean, Okendo, 22. DONOSTIA.

P A K E A

Pakea... Nork ez du nai? Guztio amesten dugun zerbaiz dugu. Zenbat esapera sortu ditugun «pakea» itza dala-tal «Pakean bizi nauk»... «Pakea eta osasuna izan ezker»... «Utzi akidak pakean»... «Egon adi pakean»... «Pakea eman zak...» «Abil pakean»... «Oa pakean»... «Pakean gaude»... «Pakeak egin dizkit».

Pake-zale gera danok. Pakearen irrikaz bizi gera. Zer da, ordea, pakea?

Beñola, etxe batera joan nintzan eguerdi-eguerdian. Bazkaltzen ari ziran danak. Senar-emazteak eta amabi seme-alaba, galga guztietako. Danak geldi-geldi zeuden. Ixili-ixilik. Bakotza, aurrean jarritako txintxo-txintxo jaten ari zan. An etxean zenbaiz tokitan besteakoa ume-karririk: «Ama, onak jo egin nau»... «Au berea dago...» «Ez dut jango...» «Ez dut ekarriko»... «Beti neri agintzen didazu»... Ura zan pakea! Eta ariturretan esan nion etxeko nagusiari: «Onak ez dauka gure etxeko antzik. Gurean ez da giro izaten! Zuek nola moldatzen zerate orrenbeste ume ain ixilik eukitzeko?».

Nagusia pixka-bat bazterrera zearkatu zan. Ondean guraso gorosti-makilleraakutsi zidan. «Makilla onak egiten dizkit emengo pake guztia», erantzun zidan.

Pakea ez da bildura. Pakea ez da eriotza. Pakean daude kanposantuetako ildakoak ere. Ez dute alkarrekin eritarririk egiten. Ez dabil bururik. Ez dute txintxirik ateratzen. Iltasunaren otz-ikara nabari da. Pakean dagoz, ilda bait-daude. Eriotzaren pakean bizi dira. «Pakea ez da gerririk eza bakarrik. Ezta alkarren aurkako indarren berditasuna ere. Ezta aginte indartsu baten ondorio ere. Pakea, zuzentasunaren emaitza dugu. Jainkoak gizadiari jarritako «ordenaren» frutua da. (Batikano Bigarren).

Baia Jainkoak gizadiari jarritako «ordena» eta gizon indartsuek gizaritari ezarritako ordena, berdin al dira?

Iraurri dezagun Heldur Camara gotzolari: «Ordena» zaitu. Eta zer esan nai du «ordenak», galdetzen dut nik. Gure arloan ezarritik dago «ordena» salatu nai nuke berriro... Esate baterako, nere aberri ontako ume famillatik, irurongi te ama ere ez dira irixten berri bezelako lan-saria irabazten... Ez paktu «ordena» orrekin... «.

«Ondasunen bakar-jabetzaren izenean, bildurgarriko gauzak egiten dira gure lurraldean... Milloika bizilagunen mixeri gorriaren bizkarretik aberastutako dirudun-talde txikiak daukagu Ameriketara. Eta gizon aundi oiek, garri bateko jauntxoan antzera, beren esku daukate indar guztia... Berri-emalleak, aberats oin mende daude zearo... Ikaragarriak egiten dira «anti-komunismoaren» izenean».

«Pakearen izenean agintzerik gogorrenetara irixten da Ego-Ameriketara. Norbait zerbitu atzeratzen, bildurgarriko gauzak egiten zaizkio. Zigor eta tratu txarrak erabiltzen dira. Berrigoi ordutan gelditu gabe jarraitu ditzake galderatzaileak txandatuaz. Dirudun eta militarren alkar-artzea, azkenekoa da. Teknikarien bidez aginte oso-osoaren berregantzen dute...».

«Ego-Ameriketara ezarritako gogorkeria dago. Baia zer gogorkeri? Zapaldukoen goseak sortu lezaken gogorkeria, ala zapalzaileek zapaldukoen aurka ezarritako gogorkeria?».

Pakea, lau zuntzi sendoren gafean eraiki bear da. «Egiaren, askatasunaren, zuzenbidearen eta maitasunaren gafean» alegia (Juan XXIII).

Egiari atekak ixten zaizkion tokian, ez dago pakerik. Ez-berditasun aundiak dauden tokian, bakotzari berea ematen etzaun lurrean, ez dago pakerik.

Bakotz bezala iritzi agertzeko, bere iritziokien bilzteko, bere kideokien alkartzeko erarik eta askatasunik ez dagon lekuan, ez dago pakerik.

Alarrentzat gorroto, ezin-erama, azpikeria, saldukeria eta txar-keria dagon errian, ez dago pakerik.

Pakea ez da, aldrebes dagona, len bezela utzea. Aldatu bearrak sortzen duan bururik egin egitea. Pakea ez da geldirik eta ixilik egotea. Pakea ez da lotan egotea. Pakea ez da jolasez eta kirolez erria zorabiatzea. Pakea ez da indarrez erria bildurpean eukitzea.

Pakea, egi-askatasun-zuzenbide ta maitasunaren alde burrukan egitea da.

KEZKAK
1970'era Mirariak

GAZTARAGA'K

Eta jende ikasiak, "karreradun" jendaki ospetsu oiek guztia gure erriagana makurtu dinala. Birrikak betean erri-arnasa artzen ari dira. Danak euskaldun eta euskal-zale bi-urto zaizkigu.

Euskalerri'ko apaizdia lainoetatik gizarera jetti zaigula: utzi dute bakur-bakurrik anima ikuskaitzen bi-lla ibiltzea eta zai egotea. Aragizko gizaikin aldeko lanari ekin diote bete-betea. Aguriko gizaikin zapaldukin, beartsuekin, lan-saririk ga-beekin, ez-jakiñekin. kezkatuekin besarkaturik ikusten ditut negarrez eta zapaldua.

Zer ekarriko ote digu urte berri onak? Zer ekarri ziguon igezkoak "Aurrerapenak, itxaropenak eta 1969" alkarrekin ondo korapillatu ziteze-la edo korapilla genizala eskatzen nuan igezkoaren asieran. Eta orain zer esan?

Aurrerapenak bai. An ibilli dira gure senide lurtarak Iltargian bein eta bitan ere bai. Gauza arrigarri-gorri!

Baietan zenbat atzerapen giza-mailan? Nun da gure itxaropenal Gudak, asarreak, giza-erailteak, txikiketak, geigiekierak, neurriz go-rako zigorrak, erio-epaiak, gordin-keriaren erakusketak... eta azkenean iru mila langille lan-saririk gabe gure Gipuzkoa'n.

1970... Etzi, Iru Erregeen eguna... Zenbat gauza eskatuko nizkie-ken Iru Erregeei 1970'era! Zer? Eskatu-la guztia emateko almenik balute, mirariak eskatuko nizkieke, mirari asko.

Dagoneko asi naiz amesetan. Bai urte zoragarria datorrigalal Beste-rik ez bezelakoa. Datorenak eta amesak egi bihurtuko diran urtea datorrigala iruditzen zait.

Jende ikasiak, "karreradun" erri-zale bihurtu zaizkigula danak erri-aren serbitzari. Injenieru eta arkitek-tuak, lege-gizonak eta erietako idazkariak, irakasleak, idazleak, sendalariak eta albaiterak... Danak alkarrekin apustuan asi dira, erria jasotzeko zeinek lan geiago egin.

Bizkaiko bandoak nola amaitu zi-ran ikusi dezagun:

Muxika zan Bizkaiaren ofiztarren nagusi eta Abendaño ganboatarre-na.

Haro'ko Kondea Bizkaia arrapatze-ra etorri zan, eta orduan bere erria arriskuan ikusi zutenean, pakeak egitea erabaki zuten, kanpoko etsai-ari gogor egiteko. «E ovieron con-sejo de reconciliar a los dos prin-cipales», eta Jauntxo baki aurrez-aur aurkitu ziranean, «alkar ikusita, lo-tsatu ziran eta ez zuten agotik itzik ere alera lotsi». Irureun urteko ger-rak eta eriotzak, alkatasun onean amaitu ziran. Ikasi dezagun.

Mungia'ko burrukan etsala garai-tu eta Bizkaio goraka egiten ari zan. Nik ere euskeraren izenean esan-go nizeuke.

Euskera batura, guztio batara.

GOITARKI

Zeruko Argia

Zuzendaria:

MIREN JONE AZURZA
ARISTEGIETA

Naparroko-Kantauriko ta Ara-goiko Kaputxinoak argitaratua
(Carlos III, 22. Pamplona)

DONOSTIA'n:

Oquedo, 22. Telf. 26666

ARPIDE SARIA:

Urtekoa 190 Pta.

Atzerrian 265 »

Aldez artu nai bada, galdetu.

Errege Magoak
eta gu

Seme bi daukodaz: Ifaki ta Jon. Lehenengoak, urte bi terdi daukaz eta bigarrenak, bat egiteko.

Urte azkenean, jaiak datoz, eta jostalluak umeal ehoteko ohitura dago. Gure Ifaki, hitz egiten hasi da, ta zein polito egiten dauan euskeraz! Eta gure Ifaki-ri, jule-teak atsegin izaten hasi jakoz.

Eta hau da orain nire problema: Noiz emon behar dautsada josta-luak, Gabonetan Alta Noel izena-arkin Europa-ko lurralde askotan egiten dan legez, edo Errege Ma-goen egunean?

Nire iritzia emongo deusuet. Zuek esan oker nagon edo ez.

Ni, Errege Magoen egunean emo-tearen kontra nago, arrazoi hau-ekaitik:

1.º Umeal sinistazaren jake Errege Magoak gabaz etorri ta erregaluak ekarten dabazala. Hori guztia da. Eta urteak pasata, txi-kitako ames gozo horrek desegiten dira. Mito bat sortu zan, ta lurpe-rati da. Desluzino zan. Alperrikako ames bat, guzur bat, mito bat sor-tu dogu.

2.º Errege Magoen egunean, ju-stu justuan, bakazinoak amaitzen dira. Ikasten hasi behar da, libu-ruak hartu behar dira. Zertarako orduan jostalluak?

Noiz orduan sariak? Nire ustez, Gabon egunean, eta ara zergatik:

1.º Katolikoentzat, urteko egun haundiena da, egun horretan ur-teak dirala, Jesukristo jaso zalako. Jaungoikoa gizon egin zan, guri salbazinoaren bidea bere bizita eta eriotzaren erakusketak. Nik bada-kit hau irakurten batek baino ge-riago iripar egingo dauka. Bai, tamalez gu katolikoentzat, katoli-ko izena erotan dabezan batuek Kristo-k sortutako Elei aran izen ona loitu egin dabe, euren egois-moa, haundikeria, diru zaletasuna, indarkeria, problemetarik aparte bizi izatea, nauti ta agintariekin ondo egoteagatik dala ta. Baina beste batuek Kristo-ren jarraitzaile zintzoak izan dira, ta or dagoz proba legez, martiriak, lehengoak eta oraingoak, eta honen artean, gure artean be. Erromako zirkoa, eta Erromako ez diran beste zir-koak.

2.º Katolikoak ez diranentzat, Kristo jaso zan eguna be egun ha-undi bat da, Kristo izan zalako, Jaungoikotzat hartzen ez badabe, erreboluzio egite bat, herri zeha-ren alde jarri zana, nahiz eta le-hen esan dagon legez, katoliko ie-na daren batuek hau aitzu.

3.º Ikastolefako bakazinoen ha-siera dalako, ta jostalluekin olge-tako bakazino egun guztia aurre-tik daukezalako.

Holan ba, nire ustez, gure umeal jostalluak, senare maitzen artean erregaluak, gaizteak gurasoi sa-riak, Gabonetan egiten egokiena iruditzen jat, baina agrian, esku-tik eskura, guzturak eta mitoak al-perrik sortu barik.

XABIER GERENO

Zertako ez du Herria'k gure eskuara?

Zeren "Herria" ez baita herri batentzat egin, bainan ba eskualdun dir-en herri guztientzat.

Zeren herri baten eskuara bakarrik erabiltzen baginu bertze herriak bazterretza baitake.

Eskuara ez du behar berexle bainan bat-egile. Hortako ikas dezagun eskuara, ez "gure" eskuara bakarrik, bainan orotan ibiltzeko on den eskuara bat.

Ikasteak ez du nihori kalterik egiten: izpiritua aberasten du, jakintsu-nago egiten. Eta izpiritua kurios duena laster oharzten da gauzeri eta za-lu ikasten du.

Asko hitz ez dira baitzepadabes bardin herri batetik bertzerut, bainan erabiltzeko molde bat dute berezia: axala dute doi bat desbardin. Hitzaren erroa aldiz frangotan ber-bora.

Ez dela zure eskuara? Baidake. Baina laster zurea ere izanen da, zuk ere hortzen badiotzu eskuara horri bere alderdia.

Egia erraiteko, nun da, untza pentsatu-ta "gure" mintzaira: gure etxean bakarrik naski!

Erdarazko kaseta bat zabaltzen badugu ere ez bide du ez, naski, "gu-re" fransesa: edo zerratuagoa, edo. berdin. arruntago.

Goazen gu kaseta huntan eskuararik, eta ahalaz onetiko. Hura izanen da beti "gurea".

("HERRIA"tik jasoa)

E. L.

BANDOKERIAK

Oñaz eta Ganboa. H'zale eta H'kontrako.

Antziñako Jauntxoan bandokeriak gure artean piztu dira, eta nola piz-tul!

Indar berri ta kalte audiogoekein.

Antziñako bandokeriak, garikoen antza gilegi aurkitzen ditel, ixilik gordetzeko. Egia dan ala ez, zuk ikusi.

Bando aiek nork sortu zituan?

Aldi artako testigu, Lopez Garcia de Salazar, Bizkaiko bandozale am-aratuari entzun dezagun:

«El diablo que siempre trabaja, trabaja entre estas gentes (euskal-dunen artean), que viven en paz, de poner mal entre ellos». Bai etsa-kiak, gure etsaikiak sortu zituan ordu-ko eta oraingo bandokeriak.

Nola sortu zituan?

Lengo testiguari entzun dezagun, ostera ere:

«En la tierra de Alava y de Gui-puzcoa eran hermandades, e ayunta-banast todos a hacer sus cofradías e llebar grandes candelas de cera a las iglesias, e llebabanlas en andas... e los que primero las trabaron que-ríanlas llevar en alto sobre los hom-bros, e los otros a pie somano, e tanto creció esta porfia, los unos diciendo que ganboa e los otros que ofaz, que obieron de pelear e mo-rion muchas gentes de los unos e de los otros». Irureun urte luze, anai arteko gerran euskalerrian.

Zenbat eriotza, zenbat gorroto, zenbat odol berro ixuri zan iru gi-zaldi aietan! Euskaldunak, euskaldun-ak iltzen, otso amorrutak bezela.

Ba dakigu ainebeste eriotzen bene-tako arrazoia ez zala goien aitatu-koa, baiña bai aitatz eta bandera: Oñaz eta Ganboa. Et bandera auen toleskuna ta xoko-mokoetan, zenbat

pizti gaizto estaltzen ziran: jauntxo-keria, arrokeria eta bengantzia.

Gaur ere H bai eta H ez, bande-ra zozo, tuntu onen zimurretan ma-kiña bat arrokeri, temakeri eta jaunt-xokeria estaltzen dira.

Aldi batetik: traidores eta Mari Gaizto. Beste aldetik buru-arin eta naspil-zale bata besteari esaten. Au bai dala arkakuxoak kañoiaz iltzeal!

Euskaldunok, zentzatu gaitzen!! Bandokeriak utzi ditzagun. Eusker-a li zorlan dago. Hitler'en antza artu dezute, gerra galdu bezeran lur az-piko iltunpetatik agintzen zunean: Alako tante aldeak emendik eraso dezala, onako korazadun taldeak au-rerra egin dezala... eta ez tankerik, ez korazadun taldetik ez zan arki-tzen zutik.

Zuek ere onela ari zerate: «eus-keraz oneal idatzi bear da, orrela erakutsi bear da... eta bien bitar-tean euskeria ifoiz baiño gutxiago litz egiten...».

H'aldeko eta H'kontrakoak: mese-de bandokeriak utzi. Jauntxokerik gure artean ez dogu bear. Hitler lur-pean dago. Ez dezagula piztu.

Parkatu, baiña euskeraren jabeak zuek ez zerate. Euskeraren jabea erria da, bai erria, eta besterik ez. Eta erria zuekin, eta zuen eztabaida zo-zoekin aspertuta daukatzute, jakin za-zute.

Baiña bandokerien amaia entzun dezagun, ikasi bearra ba deguta.

Gipuzkoa'ko hermandadeak «No catando ni Oñaz ni Ganboa» jaunt-xoen torre-etxeak erre eta lurrera huta egin zituzten, eta «echaron desterrados a los dichos parientes mayores». Eta pakea. Ondo egiña.

Euskeraz zaleok, asarrekin nora goaz? Burrukarin ez degu ezer zu-reratzetan. Mari Gaizto pozik dago, bai pozegi, gure arteko gerrakin.

EUROPA, OSTETIK

HELSINKIN ZER:

Paris eta Moskuren alkar-etortzea eteten ez dan bitartean, Frantziako egoerak ez dau adaketa aundirik ikusiko. Inoiz baino Paris'ko jokareak amerikaren edo Europa osotu baten bidetik aurreragi ba'ioya, P. C.-CGT'ko mutillak kaleak astinduko leueez eta agintariak bide "zuzenera" erakuten aleginduz. Itzuraz ez da ezer olakoren bilidurik. Gaurko jaurlaritza, aurrekoa lez, naizta zirkun batzuk egiten diarduala egin, ez da erabagien bideetatik besteratu, ta Moskua'ni bati jarritu jarraitu bearko dau; amerikarri biek ar emonda bizi izatearen ordaina. Ba-litzake baiña, Helsinki'ko batzarretik giro oheak sortzea Europa'rentzat.

Onegaitik ziur, Bonn'en aldatuntza garrantzizkoa egin bear izan daue. Ogetaurtetan Europa'rdiko muga ori mundik zabalduko ete-nan, zain ta bultzaka ibili dira. Txekoslavi'ko gertaerak ez dagola ezer egiterik erakutsi dautsee, ta asarre orretan aurrera joateak, alperriko lanak izan ez-eze, barruko eskuma-ertza indartu egiten daula iragarri. Ta orra aldaketa bearezko eta asken orduan urduri biltatua: Kiesinger eskumaren ordez ezkerreko Brandt.

Bretaña Osotua oster, Europa'tik albora geratu yakun, beste batzueri begira, ta arazo gordiagok arduratuta darabille: Vietnam'ek, Nigeri'ri damotsan laguntzak, Rodesi'rentzako makaltasunak, Uster'ek eta, okerrera, arrotzen sarrerak sortu duan egon-ezilik, ta orretatik, gaur Bere Erregetasun Eskertu'nen aurkalaritza dan Tory eskumari alderdia, urte-bete barru, agintaritzan izateko bidean doa, (ta aldika aldatze onak onura aundiak dakarkioz erri orri; eskumarrak egindako legeez ezkerrek jaurri, ta gero, ezkerrek egindakoak eskumak aginduz, baterako edo besterako keriak ardatzen dirala), ta aldatze onetatik, erbesteko artu-emonetan alde aundirik ez ba'letor bere, Europa'ko seiregaz bat egitea ez litzake bardiña izango.

MAATSA ALEAK GOREGI

Gaur, batek baiño geiagoak galdera onetsek: Seirak geroago ta alkatutago agertzen dirala, gura ete-dau, al-izango ete, batasun orretara sartze-ko igo bear dauzan maila neketsuak garaitzerik? Onen artuko ete-dauz erriak, orretarako bizkarreratu bearko leukezan estualdiak?

De Gaulle'k —ta berak daki zergaitik— ez dau ateak zabaltzerik gura izan, ta ba'litzake orain berandu izatea. Ta onetatik Europa'k ez dau okerririk izan, beste aldera, irabazi aundiak lortu baino —naizta au bera izan ez de Gaulle'n biotzko— Europa Osotua indartsuago dator orrela; lenengo-tik sortu izan ba'litz, koipe gixidun saldeana, zirin-zirin geldituko zan, alkatze lokarriak luzeegien indarabak, ta laterri bakoitzaren berekoikeriak nagusi ta etenlari.

Orain, lokari oniek sendotzen douz, ta Paris'ek ba-dausku atzenorduko atzerakadarik egiten, laster europarren jaurlaritza nagusia izango dogu, ta... barruan ez garanontzat, urriñago ta gaiztoago bertaratzea.

BEIZTEGI

Ez Merkenak

Bai Onenak!

Janari bidez izaten dira ganadu on, indartsuak, Eta nora jo jakin bear du baserriar burutsuak, Berebiziko aragi pillak; gañera esne putzuak, Olek guziak berekin ditu Fanderia'ko pentsuak.

FANDERIA

ERRENTERI

GURELESA




Gipuzkoa'ko ta Nafarroa'ko esne onenakin gortatutako esnekiak:

- Ene Pasturizatu
- Ene soila (esterilizatu)
- Ene autua
- Ene-gañoa
- Gurina
- Yogur
- Batidua

Igara ausoa - Apart. 213 - Urrut. 29060 (lau ari) — DONOSTIA

Baserriaren alde

EUSKAL ETA ERDAL



Caja de Ahorros

Municipal de San Sebastián

Banen baneko azyak
Ongarri ta abonoak
Belar Zuloak

Erosi edo berritzeko diru
aurreratze

Baserri, lur-tresnak ta abar

Torelavega'ko Perira Joan
etorriak.

AGIRIAK
POLITIKAGATIK KARTZELARATUEN ARAUDI-EGITAMUA

Madril'go Lege-gizonen Elkarteak billera bat izan zuan 1969'garren urteko Ibelitzaren 16'an. Billera aretoko erabakiz, bi Batzorde sortu ziran Elkarte barruan: bata, auzibide bereizietakoa; ta bestea, Kartzeletako jorkabideari dagokiona. Bi batzorde auek urte guzian lanean jardun dira.

Kadtezako Jokabide saillean, Politikagatik kartzelaratuen Araudi-Egitamu bat antolatu da. Egitamu au, Lege-gizonen Gobernu-Batzarrari eman diote Batzordekoak. Eta Batzarrek Agintarien eskutian jarri dute agiri ori. Ona emen zer dion agiri orrek:

LENBIZIO ARAUA. — Egitamu ontako erabakiak, politikagatik naiz gizarte arazoengatik kartzelaratutako guziel ezarriko zaizkie, nolanaiki zergati eta nolanaiki tarte-maila izan duten espeteratu oiek.

BIGARREN ARAUA. — Bai aurrez askatasunik gabe gelditua, eta bai epaibidez kartzelaratutako guziak, aurreko arauan izendatutakoak ba-dira, Egitamu onek erabakitako ba-kabidez artuko dira. Kartzela-Epaia eman duan agintari, kartzelako Zuzendariari egitamu-onen erabakia adieraziko dio epaitu kartzela eraman dutenean.

Ala ere, politikagatik espeteratutak izan diranak, eska dezakete, Egitamu ontako edozein arau eta legegaitik atetu ditzate; beste saillean preso guzian legegaitik gelditzen diralarik, beren egoera berriak artako bidea zabalik uzten duan guzi-etan.

IRUGARREN ARAUA. — Presu politikagatik kartzelatan sartzen duten uste beretik, onak bere aldeko letradura izendatu dezake. Edo-ta letradu ori izendatzeko bere baita eman dezaioke beste norbaiti.

Onelako espeteratuta kartzelan sartzerakoan, sendagillak batek bere osasun-azterketa egingo dio; ta azterketa onen kopla bat presuari emango zailo. Katepetua gaixorik ez-pada, bereala eramana izango da kartzela barruan preso politikoen-tzat jarria egongo dan lekura.

Giltzaperatua gaixorik egongo ba-litz, bere gaixo denbora, lanean ari diranena bezela kontuan artua izango da, sendatzen eztan bitartean.

Bai katepetuak, bai onen letraduak, bai presuaren gogoz izenpetutako edozeinek, eskatu dezake nai duten sendagillak ikus dezala espeteratuta, ta sendagillak onen bere egitekoa betetzeko aukera izango du kartzelatutarakin.

LAUGARREN ARAUA. — Politikagatik espeteratutako kartzelan izendatuta dagoen sailla, beste kartzelako lekutatik ondo berezita ta etena egongo da. Ta leku berezi onak bere eskorta edo patioa izango du, zeoro etena, beste presu arruntan lekutatik.

BOSKARREN ARAUA. — Politikagatik lotuak, kartzelako Batzaldi nagusietatik eta beste presuen egite-

kotatik libre izango dira; ta berentzako egiña dan bizilege bereziari lotuak egongo dira. Ona nola:

a) Gertaune berezi batzutan izan ezik, ixil-aldiak, beste kartzelakoentzatz erabakiak dauden ber-berak izango dituzte.

b) Izenketa, ixil-aldien asiera ta bukeratan egingo da, gela bakoitzean bertakoak an ote-dauden ikusiz.

c) Beren artean ar-eman osoa izango dute, ezereen oztoporik gabe.

d) Jatorrietatik kanpora, nai duten guzian eskortarako bidea zabalik izango dute, neurrik gabe.

SEIGARREN ARAUA. — Beren gela ta lekutik kanpora, politikagatik espeteratutak, ezute beste presuei ematen zaizkien esku-lan eta garbi-keta-lanetan eginbeerrik izango.

ZAIPIGARREN ARAUA. — Presu politikak, debekatuta eztauden edozein liburu euki al izango dituzte. Eskura emango zaizkie gañera, beren idatzeko, naiz edozein erli-lan egiteko bear dituzten tresnak; baita bere bizibiderako lanetan aritzeko bear duten guzia ere. Ta egiten dituzten guziaz presuarenak izango dira.

Ikasteaxeren batean izena emanak diranak, eskubide osoa izango dute azterketetara agertzeko, beren sasoiatan, matrikulatuta dauden gai guzietan.

ZORTZIGARREN ARAUA. — Beren izkoldietan, politikagatik lotuak ezute inolako maiaketa-zigorririk izanko. Etxekoekin egunero aoz-ao artu al izango dira, ta ikustaldiak ezitza ordubate baiño motzagoak izango.

Izketa-lekuetan burni-sere bat bakan izango dute gelaiztan. Eta zaitzailiek, debekatutako gauzirik barrura sartu ez dezaten bakarririk egongo dira tarteetan. Barrukoek eskuratzen zaizkien gauza guziak aurrez aztertuko eta ikusiak izango dira.

Presu ezkontuel bere ixil-bizitzako bear duten aukera eskeiniho zale.

BEDERATZIGARREN ARAUA. — Espeteratutako politikak edozeini idatzi dezaioke. Eta Juezak erabaki legeak markatzen duanetan izan ezik, beste ezertan ez dute oztoporik izango, ez zeletarik, ez maiaketa-rik.

AMARGARREN ARAUA. — Aurreko arauetan osan diranak, ezitza kontuan artu bear giltzaperatua epaika-rien erabakiz bakartuta dagoenean. Onelakotian Juezak bere bakar-ego-era jasotzen ezitan bitartean, presuak ezte esan diran eskubiderik izango besteekin arremanak izateko.

AMAIKAGARREN ARAUA. — Erlijio-eginkizuetan askatasun osoa izango dute. Ta erlijio-lanak egiteko aukera emango zale.

AMABIGARREN ARAUA. — Beren zigorra betetzerakoan, beste giltzaperatutak dituzten aukera ta eskubide guziak eskeiniho zaizkie.

AMAIRUGARREN ARAUA. — Presu, bere irizletan aldatzen ezpada ere, berdin begiratu izango da, askatasun aurretik ematen zaizkien aukeratan, naiz lanaren bidez kartzelako gutxitze-kontuan, bai baldintzak askatasunean ere.

AMALAUIGARREN ARAUA. — Espeteratutak bere gogoz artzen dituan lanak ere, kontuan artuko zaizkie espeteratutako laburtzeko. Ta ori kartzelako baldintzen barruan egin ditekene edozein lanagatik; naiz eskulagatik, naiz buruta ikaste-lanagatik, naiz erli-lanagatik.

Giltzaperatua ezin beartuta izango da, nai ezutan lanik egitera.

Besteren kontura egin ditzaketen lanak, legez erabakita dauden mailan ordainduak izango dira, Gizarte-Asegu-giur guziak eta abar, beste guziak bezela eskeintzen zaizkio.

AMABOSKARREN ARAUA. — Lanagatik kartzela laburtzea, espeteratzen sartzen duten egun eta ordutik ezarriko o zailo kartzelatutako politikuari. Eta, lan-sariaz gain, bi lan-egunegatik egun bat barkatuko zailo.

AMASEIGARREN ARAUA. — Irabazi au, bere epala betetzen ez duan bakarrik ukatuko zailo.

AMAZAZPIGARREN ARAUA. — Askatasun baldintzak ezta aldatuko bitartean danentzat naiz batzuen-tzat eskeintzen diran barkamenen-gatik.

EMEZORTZIGARREN ARAUA. — Beñetere ezta ontzat emango, presuaren irizle sinestek aztertzen. Ta au, naiz orlijio-gaitetan, naiz politikagaitzetan sailletan egin gaizki ikusia izango da.

EMERETZIGARREN ARAUA. — Katepetuak, Egitamu onen barruan artuak, ezingo dira inoiz ere beartu, erlijio nai politika, naiz gizarte-saileko biltzetara joan ditezten.

AZKENENGO ERABAKIA. — Egitamu onetan izendatzen diran neurrik bereala artuko dira Nazio guzian.

(«CUADERNOS PARA EL DIALOGO»-tik jasoa).

Lezo'ko kai-barruaren gorabide Nabaria

(1'go orrialdikat)

Dorronsoro'tar Paskual, Kaleko Lan-Batzordearen len-dakariak, onela adierazten digu galera ori:

132 MILLOI OBRETAN

Datorren urteko lan erabakiak, eun da ogei ta ama-bi milloitan neurtsuak izan dira. Ministerizatik dorkiguna, beriz, larogei ta zazpi milloitaraino bakarrik igotzen da. Kaleko Lanen Batzordeak bere gain artu bearko luke, orretan, palta diran berrogei ta bost milloik inguraztea. Baiña, orratx... Kaleko sarrera ta gastuen artean ogei ta hamar milloien aldean agiri baita, orlik dorkigugu galera artan gelditza.

—Nola bete bearko da zulo ori?

—Azkenengo urtean, Pasai-Portuko sarrera-galerak, osatuta gelditu izan dira; baiña kontu auek goraka joan arren, ontzat emanak izango dira; Obe baita asitako lanak ez geldiaraztea.

—Ze lan dira orain burutzeak?

—Lezo'ko urteko lanak aurrera eraman bear dira lenbizi: Pasai San Pedro'ko arrantza-kalak, apirillean asi ziran ta aurrera dijoaz; Trintxerpekoa dator laster aste-kotan. Ta oiez gain datoz beste lanak, kaia garbitzeko ta ondoas ontzi aundilagokontzat prestatzeko.

—Premirik gortiena, arrantza-ontzientzat naikoa leku ez izatea du Pasaiako mollak. Lan berri auen ondoren naikoa leku izango al da?

—San Pedro'ko mollen lantzia, azkarrenetakoa izan da. Datorren urteko Urrilerako bukatua izango da. Onen kostuak 73 milloi izango dira. Orrekin sortuko dan mollen-luzera irurean da irurogei ta bost metrotaraino-ko egingo dute. Zabaleran, batekoz-beste, ogei ta bost metro ta itxasoa beain dagoalarik, sei metroko ondoas izango du urak.

Egingo diran gordailu-etxeak arrantzaleentzako nolanaiki sal-gaiak aukeran eskeiniho dituzte, arrantzaleak portuazten diranetan. Ontziak zamatu ta ustutzeko ere, aukera aundiagoa izango degu bertan. Egin danarekin eta Trintxerpekoarekin, milia ta eun metro luzeroko mollak prestatuko dira. Onela, premi guziak osatuko diralakoan gaude.

MILLA MILLOIKO MOILLA-BARRUA

Egitoko diran lan guziak kontuan artu ezkerro, aurtengo gastua, aundilagoa izan dala kontratuat gindezke. Gastu auek berreun da bi milloitaraino igo baitira. Onela batnatzen dira gastuak:

Lezo'ko mollatan gastatzekoak: 64.999.881 pezeta. Bertako lurrak erosteko bearko diranak: 50.161.000 pezeta.

San Pedro'ko arrantza-molliletan: 35.000 pezeta. Traslutik-molliletan: 9.534.642 pezeta.

Dorronsoro jaunak onela argitzen gaitu:

—Lezo'ko lantzia, ikaragarria da. Gastuak milia milioi inguru joko dute, lurrak erosteko bearko diranak bar-diran sartuta. Ta portu-barrua, onen lan azkarra ta alako maiakiekin egiña izan arren, urte batzuek igaro arte, ezta burutuko.

Auek dira gure portu gorde ta garrantzitsuenen orerako egiten diran eta egingo diran gastu izugarriak. Garbitu bearko lirake, lantzia auek gain sortzen diran gastuak ere; sarrera-galerak eta abar. Guziak garbi agiri dira onartu dan Lanen Gastu-agirian.

GOIZ

HERRIAK ETA GIZONAK

ETIOPIA HOGEIGARREN GIZALDIAN

Munduan ba dira arazoak milaka eta milaka zein baino zein konplexuago eta zalazko erabakitzin, baina arazo hauetan gutxi garrantzitsua den bereiztasun bat egin behar da: Batzuek gizon izateak, gizon izatearen baldintzasunetik datoztenak besteak gizonak mundua nola eratu eta antolatzen duenik, eta nahiez gizonak mundua eratze maldatze hontan baldintzasun askoren mende egin ez du horrek esan nahi gaur sofritzen ditugun arazo asko erabaki ditzekenen ez direla.

Gaur Etiopiak bizi duan mixeria eta herria hau hartzen dut beste askoren esanplu, ez da nahi eta nahiezkoa, ez bai dator gizon izatearen baldintzasunetik.

ETIOPIA LUR ABERATS BAT

Etiopia, Afrika-n biziagun gehien dituen herria da, Nijeria eta Egipto ondoren, hogeita bost milioekin, baina baita ere Afrikan lurra gutxienez landua dagon herria eta ekonomi subdesarrollatuetakoa.

Bere mendak, meharagun iztu eta balera berde eta zabalekin, kontraste handiko paisaje ederra du. Lurra biziki aberatsa da, Etiopia izan zezakeen munduko bihi laborantzaren lehenengo. Baina egia esanda hau oso urruti dago errealitateetik, oraindik laborantzaren tresna bakarra bezala, egurrezko karru bat larrazko lokarrietatik tiratzen dena erabiltzen dute, eta bitarte exkav hauek eta gutxi zurruko fruituak urteko hiru bider biltzen dituzte.

% 90 laborerik badira o'it % bat da, % 0'77 laborantzako balio duten luraren jabe direnak.

Luraren hirugarren parte Elizarena da, beste hirugarren parte erregeena eta azkeneko hirugarren parte bat Feudal jauntxo batzuenak; bere ekonomia gutxi erdi-mendekoa da. Bete eskinitako "Erreforma Agraria" ez da inorenngana eldu, eta azkeneko Otsalean izan den ministro aldaketa gehien bat izan da, ministroak; auzartegiak zirelako bere erreformetan.

KULTURA ATZERATUA

Etiopiak ekonomia erdi-mendekoa baldin badu, kultura aldetik ere, ez doa, noski, askoz goiago hurreratu; bere % 95 biziagun analabetoak dire, Bahar-Dar, Nilo ibai ertzean dagon herriak, eskola politeniko bat du. Eta bere profesore gutxiak Sobietarrak dira.

Don-Dar hiriko unibersidadeak seireun ikasle ditu, kontua izan behar da Hiri honek miloe erdi biziagun dituela.

Mediku falta izugarria dago Addis-Abeda. Etiopia-ko hiriburuari, orain hiru urte zortzireneko ohi dituen hospital handi bat egin zen, gauroraindik geldirik dago, jende prestatuaren hutsa gutxi.

Bere garbitasun faltak ekartzen dituen gaitzak, mediku beharrak sortzen du, alegia Tuberkulosis, Lepa. Eta Masia deritzen tribu batetik, hau ulertzena da guretat, eulak umearen begiak zurgatzen dituzte, ainhasterainokoa da beren mixeria. Gizon hauek guk superatu ditugun aintak gaitzokeri sofritzen dituzte oraindik, eta zirkustantzi edo mixeri hauek superatzen biziki zalak dira, herriko jauntxoaren interesari ondo datorriolako, herriaren egoera hau.

Gizon hauentzat herriko naturaleza gutxi arrotza da. Beren bitartek oso ahulak direlako naturaleza hau menperatzeko eta lantzeko. Eta zergaitik munduan gai hauek denak erremedietako medioak egonda herri hauek egoera hau sofritzen dute? Nik uste dut justifikaziorik ez dagoela, klase batuen interesak ez ba dira.

PROGRESOA IXILTZEN DUEN TRADIZIO BAT

Beti gertatu ohi dan bezala eta ironi trajiko batekin, Garcia Marquez-ek Makondo-ko historian azaltzen digun bezala, ez dago herri hauetan progresorearen historiari, dena etxe-aberats eta laugei-eder batzuen azpian gelditu da. Herriak izenik, hitzirik sekulan izandu ez balu bezala, altxatu ez balitz bezala...

...Eta bitartean gure lurra idorrek, gure langileak ziggorrez zapalduak, ixildu egin dira, beren ezarriak, lertu egin dira. Eta badirudi gaurtean horriak eta hitzak ahulak direla.

AMAI* LASA

ITALIAKO GORABEHERA GOGORRAK

INFORMAZIOEN SERIOTASUN FALTA

Gauza gogorak gertatu dira egun hauetan Italian eta ezin ditugu ixildu. Ba dira bi aste gauza hauek gertatu zirela bainan ez dut uste han gertatutakoak serioitasunik galdu duenik.

Nere eginkizun periodistikoari serioitasun bat eman nahi diotelako egon naiz gaur arte zai eta arrazola oso erreza deritzat. Periodismoan bi distintzio egin leizke: Bata, herri hutsak eman («hutsa» hori oso arrixkutsua dela esan ondoren) eta herri horrek gudan duen aprobetxagarria baltatu bestea.

Milan eta Eromako bonadak direla-ta anarkista batzuek gartzelaratutuzte. Baina informazioiko merio gutxiak anarkista hoien atzetik dagoenaren bila dabilta eta oso ondo jokatzen ari dira. Baina pentatu al dute posible dela atzetik ezer ez egotea edo-ta zabaltzen ari diren izenak gauza hoiakin zer ikusirik ez dutela gertatzea? Azkenetako berria Feltrinelli editoreak ordainduak ez eta diren... Numbat bateri baino gehiago egin dio gaitz Feltrinelli berriaren esandakoa aztertu ondoren. Periodikoak eman dituzten arazoiak ez zaizkit serioak iruditzen: Lehendabizi, izparringiri anarkista bat zuzentzen zuela. Eta esan behar dut Feltrinelli zuzentzen zuten «Tricontinental» hiparringia ez dela anarkista. Nik irakurria dut azken zenbakia eta ez dut anarkista izate hori inundi ikusi.

Hizparringiri iraultzaile bat dela bai. Baina izenen alderdik garrantzi handia duela uste dut. Eta Che Guevara asko ezagutzen zuela? Uthantek ere asko ezagutzen zuten. Bere Eromako liburuetan liburu anarkistak salzten direla? Nik bere liburuetan Escrivá de Balaguer-en «Bidea» ere ikusi izan dut. Eta ez dut uste gainera liburu anarkistetan uste denik Rinscitta liburutegian parea dagoela uste dut baina ez du inork esan Rinscitta liburutegia anarkistena denik. Noski, Rinscitta Alderdi Komunistaren liburutegia da. Bakunin-en liburuak argitaratu dituela? Parisiko argitaraldi katolikoa batean ere argitaratu dituzte.

Ezin dudana, Feltrinelli santu bat dela esan: Hau nere tesisa susten tzearen salazeta eta hemen eman diren informazio askoen aurka joatearen salazeta izanen litzake. Ez dut Feltrinelli anarkista hoiak ordaindu dituen edo ez esateko haina ezagutzen. Behar ba da Feltrinelli erurdu izanen da eta ez dut uste



Urteberrian jakinen dugu zer den zuzena Saragat-en diskursua entzun ondoren. (Chiapelli-ren marrazkia, «Sette Giorni-tik» hartua).

hau garrantzi handieneko gauza denik. Garrantzi handiena gure informazioz baliaturik beste hamaseika askoen bizi intelektualak lehortzen ari gerala.

LENGILEAK DIRA GEHENBAT SUFRITZEN ARI DIRENAK

Orain dela hilabete izan ziren huelgatan Italian orden baten falta ikaragarri bat zegoela zabaldu zuten hemen. Eta egia ba da ere ez da egia osoa. Milano Ammarumma polizia hil zutenean «Sette Giorni» hanga asteroko serioenetakoa batek hunela idatzi zuen: «Beharrezkoa da anark lurrean edukitzea bidea aldatu nahi denean eta batez ere nazio guztien bidea aldatu nahi denean. Ezin duguna erabateko huelgaren aurka joan polizi bat hil dutela eta informazioiko merioetan izan diren reakzio gogorak direlako. Denok gaude sentidurik gabeko indarkeri hauen aurka bainan hunk ez du huelgaren zuzena ukatzen». Eta hitz antzekoak erabili zituen Saragat poliziaren sendiari bidalitako telegraman.

Nere iritziz hiru gauza hartu behar ditugu kontuan Italiako gorabeherak aztertu nahi ditugunean. Hiru indar debiltza jokoan azken gertaera hauetan.

1.-Estremista batzuek kaleko gerlak behar direla esanaz eta gela hauek probokatuz (Ammarumma- ren kileteta eta Milan eta Eromako bonba ipintzeak adibidez).

2.-Orden publikoaren politika serio baten falta, interbentzio estra-tegia jarraituz. Legez, denak dute manifestatzeko posibilitatea eta politikaz manifestanteak defenditzeko daude. Baina politikaz askotan in-

terbentzio hauek probokatzen ditu manifestazio asko begi onez ikusten ez dituelako.

3.-Oinarriko dato bat: Politikak jira bat eman behar duela langile klasearen kontzientzi serio eta eldua ezin bal da nolalan alde batera utzi. Eta gauza asko eskatzen ditu Italiako langileak.

Langilez baliaturik dabilta denak bere jokoan egin nahian, MSI (Mussoliniren garaletako alderdi faszista) PKI esaten duenaren aurka joanaz. Bai, hunelaxe dabilta sistemaz naz-ta gauza askotan konforme egon. Orduan gehiago interesatzen zaie bai batzuei bai besteiei beren aurkako alderdiaren aurka joatzeko langileen aldeko burruka bat aurrera eramatea baino. Eta hemen ere berdin gertatzen dela uste dut. Garbi dagoena, anarkista, polizi eta estatuaren jokarak zikin eta kaltegarriak direla Italiako langile klasearentzat.

ANJEL LERTXUNDI

ERAMAN - EKARRI*raio

AGENCIA

Transportes ALE

EUSKAL IRRATSIAIOAK

ERRI GUZTIARAKO

Iparaguirre, 8 - DONOSTIA

AMERIKAKO ESTADU BATUEN ETA TXINAREN HARREMANAK

Ahenduaren hamabostean Varsavia Estadu Batuetako eta Txinako representantek otsalean gelditutako alkarizteak herri azuten Bestalde Washingtonek Txinakin komertzial harremanak dituenari askatasun pixkat bat gehiago eman die.

Ari ote dira bi pontearen relazioak biguntzen?

Amerikan ditenez yankiarrek emandako-askatasun hau ez da

soliki borondate oneko ekintza bat baizik ere erretasun bat bere komertzio lurralde haletan sendotasun gehiago emateko.

Hor dugu bestalde Estadu Batuetan emandak oboeta Nazio Batuetan Txinaren sarreraren aurka.

Txinaren iritziaz dagokionez gauza jakina da zelan ikusten dituen Txinak Estadu Batuetako ekintzak bake koestenzialaren baitan. Gai-nez ba du orain nahiko frogantza

Nixonek eta Japoneko Eiasaku Satu-k militar gaitzak eukitako alkarizketekin. Zeren Txinako Estaduak, yankiarrak Asian dauden bitartean agresio baten kalteidun bezala ikusten du bere burua.

«Le Monde» aldizkariaren arabera ez dira relazioak bigunduiko ez badira Formosa —Txang Kai Etxen Txina Nazionalista— eta Etxe Zuriaren relazioak osten.

ANTON SANTAMARIA

Zergaitik Italia?

1963'gn. urteko otsalean, erdi aldeko ezkertiarrek, erreforma konpletu bat, Italia'n lortzeare konpremetitu ziren (Gobernua alegia) Plan general hontan, etxe-bizitzaren arazo konpontzeko, seireun miloi-lira emanen zituztela zioten. Sei urte igaro dire, eta etxe-bizitza arazo berrir ere azaldu zen, herri-protestaren gai berezia bihurturik. Seireun miloi lira beharrez, 400 miloi lara zituztela somatu zen, eta kontribuzioen zati handiena, empleo direktora alde batera utzirik jaso zela.

Sindikatuak, greba jenerala prestatu zuten, industri aldetik ere desekilibrio perlosa agertzen asi zelakotz... baina gobernuak, beldurrik eta ahal bezain pronto, plan jeneral osoko bat prepatzen asi zen (?) Mila eta zazpiren miloi plan honi eskainiaz.

Berritu behar zirenetik, aukeraturakoak hauek izan ziren: Fiskal erreforma, Unibersidade erreforma, Seguridade erreforma (zearo bazuta azken urteetan) Administrazio erreforma eta... errejioen sorketa. Gal honen erreforma, zeoro atzeratua izana da, hau batetik, eta erreformaren teoria etzela beste mundukoa, bestetik... deliberazioak eta deliberazioak gobernuaren buruan; bestalde zenbait «gabineteek», erabaki lirainak hartu zituzten... deliberazio kirtanak, lirainkeriak, teoriak, lasakeriak... HUTSA! emandako promesa etzen ilun ere ageri.

Gobernuaren hutsune haundiena, planifikazio global bat egin ezan dakegus, Eta desastrea, administrazio, gabinete eta ministerioen bere aldeko ekintza indibidualak dakarki.

Maoistak, Komunistak (PKI), Faszistak (hauek batez ere) greba honeri, norberaren alderdian sentidua eta ideologia eman nahien dabilta. Komunistak, L. Longo (PKI'ko sekretarioa) buru dutela programa bat prestatu zuten Bologne-n PK-ren XII-gr kongresoan, azkeneko otsalean. Baina erdialdeko-ezkertiaren programa ainakoa dela deritzaguz, ez besterik.

Baina halere grebaren sentidua ez dugu inolaz ere politikua ikusten, baizik eta gobernuaren administrazio eta infrastruktura aurkakoa soliki. Herri, LANGILE, ikasleen greba dugu Italia-n, ez komunista edo faszistena. Italiarra dugu grebalari.

MIKEL MENDIZABAL

Tomás Eizmendi'ren Jatetxea

Zumal erritlik metro gutxira. Ibai ertzean par-irriz, etxe polit bat zure zai dago euskal kutsu zoragarri. Arrai, barazki, aragi eder; nai dan aukera janariz, jatetxe au beln probatzen [duna] laister azaltzen da berriz.

RESTAURANTE TOMAS EIZMENDI

Curva de «Chiqui-erdi»

Tel. 86 13 90 ZUMAYA

Muebles Inchausti

Lasarte'n dagon etxe on [batek] eskeintzen dizu ostatu, an dauden gauza zoragarriak bixitatzera prestatu. Apain, dotorez, berdifilik ezta; inola ezin puskatu, MUEBLE bearrez baldin [bezero] INTXAUSTI'NEAN eskatu.

Estación, 19

Urrutizkifia: 97580

LASARTE

Bodegón Alejandro

Alejandro'ren Bodega dago Donosti'ko txoko baten, bein ezagutzen dutenak zintzo dakite aruntz jaten. Nai dan aukera ba-dezu beti jaten bezela edaten, oberik ezin arki ditek merke ta ondo ematen.

Fermín Calbetón, 4

DONOSTIA

ELEIZA URTEAREN MUGAN ELIZ - ONDOAN

Arabako kristau euskaldunenizati orria

Edozein instituzio edo elkarte gizonen aurrean jartzen ba da, gizon horien jutiloa eta epala antzuteko prest egon behar du, hau da, gizon begietan isplitatu behar da. Tajukoz elkarte baldin ba da beintzat. Gizonak galdutuz eta gizonak deituz ba dator, gizon horien erreakzioa eta erantzuna jasotzeko prest egon behar du. Are eta gehiago, zer esanik ez, elkarte horrek —Eleiza katolikoa kasua da bezala— bere burua gizon guzientzat balio duen Berri bat mensajerotzat jotzen ba du. Ez, dudarik ez dago, Eleiza ez da mafia itxi bat: elkarte irikia da, gizon guzien erantzunaren eta opinioaren zai dagoen —edo beintzat egon behar luke— elkarte da. Edozein gizonaren opinioa jasotzeko prest.

Horregatik nator ni «edozein gizon» titulu hortan basatuz nere opinioa ematera. Nola dakust nik, edozein honek, Eleiza orain, egun habetan joan zaigun urtean?

satzen dira eta maiz Eleiz horren kontra jotzen dute.

Eta nolabait ere idea askatzale horiek Kontzilioak berak emanak dira. Ba dirudi beraz ideak egintzak baina gehiago korritu dutela Eleiz ofizial hortan. Berak emandako ideak bere kontra bihurtu dira, berak ideak horiek egi bihurtzeko kapaz izan ez danean.

Horixe da aurtengo balantze argi-lluna.

MONOLITO HANDI ALA MOSAIKO ARGITSU

Burruka habek, jakina, ez dira espirituraren bako santuan eramaten. Burruka latza da. Eta Eleizaren batasuna ere sufritu behar! Isolotoko kasua argibide ederra da. Asieran mogimendu espontaneoak maneja-tzen salatzen dira zenbait gotzaiek,

baina exito gutxi dutela ikusiz gero, juridiko arma guziaz eskutian harturik, dilema gorria botatzen die el-karte berri horiei: zuek ala nik, ne-rekin ala ene aurka. Eta haien erantzuna ez baita erreza! Jerarkiarer-kin izan nahi dute bai, baina explo-tatzaille dan bitartean, eta mundu hontako explotatzailleekin dagon bi-tartean, jerarki hori bururatu be-harreen arkitzen dira alderdi horta-tik.

Beraz egoera ez da hain alai. Le-hen Eleiza zan monolito handi eta indartsu hura puskatu eta desegiten asi da; batasun estua gaitzen. Espe-rantzua dugu, ordea, puskatze honen ondoren batasun berri bat jaiko de-la. Jainkoaren esku artistak mosaiko argitsu bat konponduko dula, mundu osoaren itxaropenak margo-tuko dun mosaiko koloretzua.

MUXIKA

LOAK HARTUTA ZEGONA ENSATZEN ASI

Azken urteetan Eleiza askotan izan da notizi eta edonongo linotipak be-rarekin okupatu izan dira: Kontzi-lioak eta Sinodoak, Aita Santuaren ibilialdiak —arrazoi guziz hain ez-tabaidatuak izan diran erromesaldi berri horiek —Entziklikak eta Got-ztai-konferentzien deklarazioak... ba zan beti zer bait.

Aurten, ordea, fenomeno berri ba-tekin egin du sarrera notiziaren mun-duan. Aurten, garaia ere ba zan, bes-teak izan dira askotan notizi: apalki bai, baina indar guziz, eleiztar soi-llak eta kristau elkarte herrikolak berea esan eta egin izan dute da-non aurrean. Lehen agintzaleak ba-karrik, orain besteak ere aian dute berea. Hara hor nere irudiko, Eleiza-ren aurtengo balantze guztiz ona eta itxaropentsua. Esan genezakegu bel-durrik gabe lehen lo bezala zegoen kristau soillen gorputz handia, asko-tan errezegit erabili eta explotatua izan dan gorputz handi hori esnatzen asia dala. Asia bakarrik, baina ba da zer bait.

Ba zirudin fenomeno hori Eleiz je-rarkiararen gustokoa izan behar zula. Ez ahal zan horixe, hain zuzen, Kon-tzilioak eskatu zuna? Ez ahal zan hori Eleizaren irudi berriak eskatzen zuna? Hala izango zan bai, baina bes-te askotan gerta ohi dala bezala he-men ere, ideak egi bihurtu diran uean eztabaida eta burruka latzak eta, egia esan, penagarriak sortu di-ra maiz jerarkiararen eta kristau el-kartearen artean. Hori ere aurtengo balantzean sartzen da: kristauak osatzen duten gorputz handi hori bu-rruka bizian eta Eleizak berak jar-tzen dien ostopenen kontra asi da esnatzen.

NOREN ALDEKO: HOR DAGO ARLOA

Zergatik, ordea, sortu da hainbes-te burruka? Zergatik sortu dute kris-tau elkarte espontaneoak, apaiz bi-llerak eta modu hontako beste zen-bait mogimenduak halako ezinegon eta ezineraman bat Eleiz-instituzio-aren barruan?

Firenze-ko Isolotto bat hartzen ba dugu, eta berdin Madriderko Morata-laz elkarte, Amerikako Eleiz sutte-raneoak, edo ta gure arteko apaiz eta elkarte zenbaiten joerak hartzen ba ditugu, zuzenbide berezi bat ar-kituko dugu gehienetan: mundu hon-tako azkenekoekin, itxaropenaren konsueloa bere ere debekatua dute-nekin batera jarri dira. Gizonen al-de jarri dira eta, hain zuzen, gizon-a-ren aldeko izan liteken erarik egiaz-koenean, beartsuen eta persegutuen aldeko.

Hor dago, ordea, arloa. Eta hor da-go kristau fededun zintzo askoren miña: kristau bokazioa jarraituaz beartsuen eta persegutuen burrukan parte hartzen dutenean maiz Eleiza ofizialaren postura zenbaiten aurka bururatu behar dutela. Kristau zint-zo izanik euren ulerariaren eta eu-ren eleizaren posturen kontra joka behar! Eleiz hori mundu hontako jauntxoekin bat egirik dagolako maiz eta nahi ala nahi gabe bears-tuen explotazioari bere indarrak eskeintzen dizkiolako. Hara hor mi-ña: gizonen askatasunera darama-ken bideak askotan Eleizaren barren-dik ez, eleizaren kanpotik baizik pa-

GEREDIAGA TALDEAREN SARIAK

Durango'ko Merindadeko Lagunak, beren 1969' garren urteko «Gerediaga Sariak» zabaldu dituzte.

Maiekoak: euskerazko lanetarako, Jose Maria Satrustegi ta Eusebio Erkiaga jaunak; ta erderazko lanetarako, Karlos Gonzalez Etxegarai ta Jose Artetxe jaunak.

Euskeraz saritua: Juan Etxaideko izan da, be-re liburu «ETXAHUN'EN BERTSOAK GIPUZKERAZ» izenekoagatik.

Ohorezko aitemena izan du, Villasante prantzizkotararen «JESUKRISTO» izeneko liburuak.


Erderazko saria: Mikaela Josefa Portillo andreak eta Jose Egia Lopez de Sabando jaunak eramane dute: Liburu sarituaren izena: «CATALOGO MONUMENTAL, DIOCESIS DE VITORIA, DIOCESIS DE TREVINO, ALBAINA Y CAMPEZO» izan da. Lan au Gazteizko obispaduak eta Gazteizko Aurrezki Kutxak babestua da.

Ohorezko sariak jaso dituzte: Jose Antonio Agirre Elustondoren «ASI ESTA LA ENSEÑANZA PRIMARIA, HABLAN LOS MAESTROS» izeneko li-brurak, GAUR argitaldaria atereak.

Eta Julio Caro Baroja'ren «LA HORA DE NA-VARRA» izenekoak. Au, Napparoko «Institución Principe de Viana» argitaldua.

Sarlituei gure zorion-agurra bialtzen diegu.

Sony da ametsaren izena




ariñena, telebistarik eskurakoiena (beatz batez eustekoa)

SONY edozein tokirako da
SONY'k 4 kilot'ardi pixatzen ditu
SONY 9'ko argi-laukiduna
SONY iru senti-giltzaduna
SONY aurrez-aurrezko sbots geitzailleduna
SONY etxeko tximist-indarrez eta bateriz erabiltzekoa
SONY'k lau izki ditu:

SONY

Donostia'ko ordezkari: A. Mendizábal Obanos - Peña y Goñi, 5 - Urrut' 10811-Bilbo'ko ordezkari: J. M. Lara - Fica 8 - Urrut' 239642
División Audiovisual: Irrati, telebista, magneto-soinua ta magnetokuskiñak. División Sobax: Elektro kontatzaille eskurakoiaik.

(11'garren orrialdean jarraitzen du)



OLABERRIA.

andoain

Euskaldunok, zorigaitzez, beti ez padare, gelaetan arro-arro mintzatu izan degu: lur-zabal guzian, gu aintbestekorik ez zela izan: Jolas ta kiroletan naiz pilotarik izan naiz arraunarlik, inun ez gu añaorik: orain Urtain ta orain urte batzuk Uzkudun ta Otxoa, Lan galeetan, zer esanik ez: langille, inor ez bezela; ariñak, eleiztarrak, ta onelako bertze ezta-ki zenbait doai, ezarri izan dizkio-gu geren buruel. Gure ao ots ta eronkak nun-nai zabal izan ditugu batetik bertara. Musikalari, ertilarik, ta orrelako beste «ari» asko. Beti ez, baina askotan, guk zabaltze genitun eronka oek, egik izanen ziran, bidezkoak: baina ere aundirik ere izan ditugu. Gure errokeri aiek baño aundigoko akatsak bai: ludi zabalean ezaizuten gaituen erriak, aurgiegira bota ta jauritzen digutena. Zer? Antzinetik ezjakinak gerala. Mintzatu bai, ongi mintzatzen degula, idatzi ez ordea: idatz behere ezkeria izan.

Direla ogeita-amaika urte edo, an, Gazteiz'en, Lekuona Manuel jaun agurgarria irakasle gendula, onela gal-

KEZKAK...

(3 garren orrialdetik)

orra gizonetik gizonera berdinan mintzo.

Gizonezkoak dituen eskubide guztiak zor zaizkie emakumeari. Ori beti ala da, berez beintzat. Aurrerakoan, orra emakumeak, gizasemeen eskubide guztiak beren esku dituztela. Gizonezkoen berdinan ikasi eta argiturik, gizalari egoki guzti-tarako gertuturik eta trebe.

GURE ERRIA. gure uri eta erriak, erri-buruiak, etxe-bizitzak, lantegiak, baserriak, itsas-ontziak. Eliza eta elizak, gazteak, eskubideak, maitasuna, pakea. Euskera, zuzenbidea...

Eta beste zenbat? Ori amesa egin dut! Ames ederra, bikaña, zoragarria. Baiña... dana len bezela dakust! Ikusiko ere! Azkenean, amesal! Eta amesak beti ames izan, beti uts, ezerez.

Lur-bira osoa zear aintab eta aintab eskuikusi zabaltzen eta barreiatzen dituzten Iru Erregeek, zergatik ez ote diote ori gusia ekarriko gure Erriari Zer dugu, bada, mirari batzuk eskatzeko?

Bai, mirariak... Ez, orratik, mirari oien bearrak eta premirik ez daukagula! Baiñan mirariagatik irakel Zergatik ez dezaizkigukete mirari oiek danak ekarri 1970'ean? Zergatik ez? Baiñan...

Amesak ames eta mirariak mirari, ez dizkigu inork egingo mirari-mota oiek eskatzek. Alperrik gogozke aozabalik zai.

Gutxienez ere, ordea, egin dezagun mirari bat: ames eta mirari oien billa bakoitzak gerra alegintza berran ipintzea. Oran mirariak egiazkoan! Eta gure esku-esku daukaguna.

GAZTAÑAGA'K

Ta bukatzeko, gure erri ontako lekañak? (Moniki).

Oei, danol, erantzunga, xamurkio xamurkio emango diegu. Ez etsi: zeudezte lsaai.

BINGEN

eibar

BARRENKALE

Lehenago ere kalean izenez jarduna naiz. Ez nuen Barrenkale aipatu. Izan ere, zenbat eibartarrek ote dakite nun dan kale hori? Ez askorek, bertan bizi diranok kendu ezker.

Barrenkale esateaz bat, lehengo kale zaharraz gogoratzen gara. San Andres Eleiza aurretik Aritzaraino beheruntz zijoana.

Oraingoa ez dago hain barrenean, hilari barrene ez bada esangura beintzat, goienetarikoa bait da.

Nork jarri ote dio Barrenkale, bere merituiz Goienkale litzekeanari? Sentimental sasi-argitsuren batek, agian.

PLAENTXIATARRERI ZORIONAK

Joan zan astean, Berogarara ninjola, neska birez gelditu eragin ninduten (?) Maltzagako hirubidean.

Autoa geratu eta atea iriki ala, besterik gabe euskeraz galdetu zidan batek:

—Plaentxiara zoiaz?

—Bai neska, sartu.

Gero, Plaentxiaruntz abiatzen girela, beren arazoak jardun zituzten euskeraz ere.

Heltzean, «Gila» aurrean, alkar agurtu genuen:

—Agur ta eskerrik asko.

—Agur ta zorionak.

Behar bada, ez zidaten ulertuko nere zorionak opa beharra. Gabonak hurrengo astean ziralako edo...

ONGI ETORRIAK

Gure adiskide mina, David Arriola, hilabete luze eta larriak ohean igaro ondoren, berriz kaleratu zaigu. Uda berriko azken elurak artu baino lehenago Tobazoko parraparean eskiatzen ikusi nahi genuke. Hala izan dedila.

Ustekabean, Xabier Zabaleta ere kalean agurtu dugu. Gabon jailetara ote era etorri omen da.

Gero, berriz ere esjeteratu behar bide da, la noiz ean dezaiokegu ongi etorri behin betiko. Etxeberria eta Lezo'ko Unanue.

AMATINO

errera

URTE BERRI ON

Opa diet biotz-biotzetik irakurle guztiak, batez ere auean atsekabean arkitzen diranai, ta beren etxetatik urrutit daudenari.

Urte berri au izan dedilla pake urte berri bat, eta trakekeri guztiak zuzendut ditzela. Gizonaren nortasuna, egia ta zuzentasuna atera dedilla garille, omen eta mundu guzian, bada premi ederra dago orretarako.

eraz, danori, URTE BERRI ON.

AZPI BIDE BERRIA

Azpaldiko urtean eskatzen gendun eta azkenik egin digute ain premizkoa zan bide au.

Bide zabala igarotzeko ez dago gaitetik igaro bearrak eta lengo arrisku ikarragarria aldendu da.

Oso toki egokia dago, eta, naiz eta, pauso batzuk gelaio eman bear izan, eta eskallera malla batzuk igaro, oso mesedegarri izanda aldaleta au.

Ala ta ere badira oraindik gaitetik igarotzen dutenak bide-zabala, ta tamalgaria iruditzen zait ori egitea. Zertarako arrixkuan jarri bideberritik lasai ibilli besterik ez eta?

IKASTOLA

Aurtengo ikastaroa asi baño le-nago: baderan goberbara latsak umetxoan ikastolak antolatzeke leku arkitu ezirik.

Nola nai ere, aurtengoz beintzat, badute toki egokia eta ia urrengo ikastaroako toki berezi bat antolatzan dan.

Oraingoz, Parroki'ko itzaldi gelan arkitu dute beren ikastolako lekua, ta ori eskerrak gure erretore jaunak laguntza oparo dualako borondate onez.

Beste batean berri gelaio emango det gal ontaz, bada badirudi gogoz dabilzaila erretarrak, gurea degun izkuntza, ikastalaren bitartez berari dagoikion mallan jarri naiean.

KORTARA

MUEBLES

Bidarte

Avda. del Gral. Franco, 13
Urrut. 85 12 85

Kabi berria dazute?
Ederkil
Osatu nai dezute?
Atozte, konponduko
gera-ta

ZARAUTZ

TRANSPORTES azkar

ERAMAN - EKARRIRAKO KAMIOI AUNDIAK

Donosti'tik egunero:
Barcelona, Zaragoza, Valencia, Madrid, Oviedo, Gijon, Iruña, Bilbao, Gazteiz, Jerez de la Frontera, Cadiz, Alicante, Murcia, Cartagena, Granada, Almeria, Ra.

Astean iru aldiz:
Sevilla, Lugo, Coruña, Orense eta Vigo'ra.

Eustasio Amilibia, 13 ta 14 - DONOSTIA
Tefnoak: 25.457 eta 26.987

BONBOITEGIA BEZUZAK

Lor

IGANDE TA JAIEGUNETAN IRIKIA
DONOSTIA
Hnos. Iturrino, 22
Urrutizkña: 1 94 15

ERLOJU TA BITXITEGIA

Eduardo Chopetia

Vergara, 11 - Urrut. 17751 - Etxekoa: 22700 - DONOSTIA

1.896 1.969

GIPUZKOAKO PROBITZI - ERATETXEA
(Caja de Ahorros Provincial de Guipúzcoa)

Zure diru bearetan gure
«PRESTAMEN SERBITZARITZA» (Servicio de Préstamos)
balia zaitze

Zure baserria erosteko edo obetzeko
Zure Arrantz-Ontzia erosteko edo obetzeko
Abera —azienda— erosteko edo obetzeko
Baratzeko fruituak obetzeko
lakindean jarri zaitze Donostia'ko gure
12 ofizinetan eta Probitziako 63 sukursaletan

3AR - RESTAURANT

AURRERA

DONOSTIAN ZURE JATETXE BAKARRA

Jrbleta, 12 — Urrut. 12578 - 11528 — DONOSTIAN

JOSE ZINKUNEGI'REN
OPTICA BERRIA DONOSTIAN

URTIETAN LAN OIETAN OITUA
BARRUAN DANAK EUSKALDUNAK

HERNANI, 4 DONOSTIA

azpelti

Ill onen bederatzian, Prantzizkotar Torrealday gazteak itzaldi bat opa zigun. Berari aditzen gazte mordoxa bat gilian, bal ortain gazteak etziran batzuek ere. Itzaldi au emen-

go euskal alfabetatze saio baten asiera bat bezela izan zan. Egoki itz egin zigun gai onen buruz Torrealday, eta pozik erten gilian naiz ta bi ordu luze egon berari aditzen. Azkenean alkar-izketa bat sortu zan. Entzule bateri «H» famatu orrek buruaste aundiak ekartzen zizkion. Euskal alfabetatze ori aurrera era-

maten asi diranentzat, argi aundi zabaldu ziotela uste det itzaldiaik.

Azaroaren asieran, Lololako erri-irratian saio interesgarri bat asi zan. Bere gilin naia: errian alkar-bizi-giro bat sortzea. Orailharte ez du errian interes gegeri sortu; baia interes ori merke dula uste det. Saio orren izena, Kale Nagusia, eta saio orren barruan irakurgalsariketa erderaz eta euskeraz, lenago esan degun egin naiakin.

Abenduan ogeita bat. Azpeltiko zezen-plazan Agerre ospatsuaren omenaldia. Jende asko omen zan omenaldian. Aditu detanez, ia beste inen zara zezen-plaza, auton illara Festetako nobiladetan bezela omen zan. Aizkolariak, korrikolariak, arrijasotalek, ta bertsoariak eskeini zituzten bere saioak Agerre'ren omenez eta eriritaren atsedenerako.

ZUBI

galdakao

ZAURITUTA

Etxian bere zeregiñak egiten dabilela jausita, bernasur da orkaitilla apurtuta Barakaldo'ko "Crucis" osatetxian aurkituten da, aspaliditxuan, Azpuru'ar Josebe. Zamako-na'tar Tiburti'ren emazte argia. Iauskera ortan egin ebazan apurketak orreek zazarak izan etziran da, luzar geldirik egonbearra izango dau emakume zintzuak.

Postuko gara laster baten guztiz osatuta bartz bere etse inguruan ikusten ba'dogu.

EIZARIA ERAIL

Lotazilla'n z'ign. beren adizkide ona eben Uriarte'ekin batera eizan (Caza) doiazala, laprazkada baten jausita beren su-tizkilla uraizi (disparar) ta urten leutson daubadak sauritut, aldi gitxi baño len il zan Bernaola'tar Jon, berrogei ta sei urteko gure eiza mutila. Ta beren lagun Uriarte be, zauritua izan zan dandaba berakin, baia, zorionez etzan izan artu eban ikera ta laguna orailatik omen leutson samiaña baño beste zauri andirik... baña nai-kua, esan dauskubenez, bartz su-tizkilla ez artuteko. Askotaz obe-to, adizkide Uriarte, su-tizkilla ori guda-zaleak itxiten ba'dautsazube eta, mendira ibilli nai badezu, artu eskumakilla (cachaca) bai eta gorri neurekin, txorrik eta baco-obere guztiak ikusiten, azke euren giruan, askotaz dira politaguk su-tizkilla izkeratuta edo erail-da baiñota.

Laguntzen dautsegu atsekabeen Bernaola'tar sendia.

GARDIAZABAL ILDA

Gabon-aste ontan, Bilbo'ko egunkariaren bitartez jakin genduban, Gardiazabal'dar Jon oin-pelota edo ostikokete epale (arbitro) ospetsua. España laterliko onena eta ludi guztiko onenatarikua izan dana il zala. merbeit kirolatze irakurri daben guztiak ezagun zan kirolar zuzen au, erri-arteko, laterri-arteko jokaldirik usko epaitua zalako, eta inok baño obeto jakin ebalako.

Eztong asteroko ontan Gardiazabal'en izena aipatuten, amen edo fama andikua zalako, urte askuan berakin euki genduban adizkidetana gatik, baño beren gizontasuna ondo ezagutzen gendubalak ta. beraz, samingurri izan dalako guretat, beren erioza.

Gizon zuzena, zurikeriak beragan tokirik ezekuna; bilbotar jatorria eta euskotasuna edonon erakusten ebana; argia ta lagun zintzia hera. Orain egu ta sei urte ezagutu neban Juanito, orretara deituten leutizen guztiak, ogei urtedun mutil gazte alaiak; epailetzat ikasten asi zanean. Ni-be aldi artan ostikokete-ko epale nituzan da, lenengo epailelaguntzalle urten ebanean, nire laguntzalle urten biar izan eban da, beste batzuetan be bai; gero urte asko baño leen "irakaslia" baño ikaslia uzkarregia izan edo askotaz gorago eldu ba'zan be. Eta, ortik asi zan gure adizkidetasun benetakua. Goyan Bego adizkide zintzia. Gero arte Juanito!

BASA-JAUN

legazpi

ANTZERKIA

"La Salle" Antziñ-Ikasean Elkar-teak antolatutako, Antzerki-Lagunak, deritzaien taldeak, beren jolas aretoan, lau eguez aurkeztu digute. "Alfonso Paso"ren "Este Cura" goimallako antzerki garantzitsu ta atsegiña.

Iru ataletan banatutako ertilan bi-kaña. Gaur eguneko gertakizun nabarmenak sortu zitazkion apaiz gaioari, baña, etzioten parrik egin erri agintari, ta aundizkiak. Estualdi bapoka igaro bear izan zituan, aurrera-koia bai zan bera, ala ta guztiz ere, beran sendo jarrai zuan, agintarien asarreaki jaramonik egin dake, bere ametsak egi bihurtzera iritziak. Irak-pen ederra antzeslan onek ematen diguna.

Antez-taldea, bakoitza bere zer eginen, ezin obeke lan egin zutela aitortu bearrean gera. Erri guztiak ao batez zion bezela, goimallako antzerlariak ditui talde onek. Goresmen bikaina iritzi dezutela Antzerki Lagun ok. Txalo sutsuak jaso zituzten erlilari trebeak.

Negu aroko igande arratsaldeak, atsegintsu igarotzeko zui gaituzue berriro, len-bai len gertatu beste bat.

ODOL EMALLEAK

Aztertu sakon bat eman dezaio-gun, erriar mailteok, odol emalleen elkarte ori buruz, gure barrenari. Irakurle, Utzaren ordez, zuk eman zenezakeen odol apurtzo orrek: Zent-baterañoiko mereseak iritzi dezake-gogamenik noiz-edo noiz izan aldezu? Arazo asko ditugu gaur egun kezkatzen gaituztenak. Gure burua, ta lagun urkoarena gaizkatu ditzazken elkarte onek aintab gar-rantzit, bai ote, arazo oietako as-ko?

Aurrerapen izugarriak ditugu gaur egun, gisartearen aroko aurrerapen. Zer ondore dakargite aurrerapen oietako askotok? Ez daukagu ka-miñ-ertzetara begiatu besterik.

Zenbat eriotz, zenbat zauritu, zenbat odol itxultze negargarri, egune-ro bide erit oietan. Ona emen ar-ra-zoi astun da sakon bai, al degun guztiok odol emateko prest egon erazi bear ligukena. batez ere egu-nero berbilletan beren zer egineta-ra joan etorria egin bear dituenak. Oleri berazki dai bai, arrikurik aundienetakoan sartzen diran ezke-ro, berak izan ditezala eredu, elkar-te ori lagunduz odol-emalle aurre-nekoak izan ditezten.

Odol Emalleen elkarte onek, iru-rogeita amar bazkide inguru ditui Le-gazpi'n. Langintz erri goienetakoan dan erria, jakintza giroan aurrera-tziaz dijon bezela, erruki egintze-tan berdindu nai badegu, beste erri batzuen ondoren, agertu nai badegu, odol batean kezkatu gaitzen gai onetzaz, bazkideak ugaldu agertu nai badegu, danok batean kezkatu gaitzen gai onetzaz, bazkideak ugaldu agertu nai badegu, danok ba-tean kezkatu gaitzen gai onetzaz, bazkideak ugaldu ta elkartea sen-dotu dezagun. Legazpi baterako oso motx gai gaude bazkun onetan.

Aurretik eza degula pixka bat esango nuke nik. Elkarte ori lagun-teko, ez da bearreko odol emate-tea, diru laguntza bidez ere izan li-teke bazkide, aldezenak odola, ta ezin dezakeenak txanponaz, erriar danok izan gindezke Odol-Emalle Elkartearen bizi emalle.

Bazkide izan nai duanek, naioka du, batzordeko nor nari izena emate, ondorengo aietvek osatzen bai dute. Aitzel'tar Pablo, Aldabe'tar Nikola, López'tar Esteban, Las-tar Maribi, ta Zabaleta'tar Maribi. AN-ZAN

erregetako ipuiña
guk ikusi genduzan!

Gabeko zortzirak orduko, lo konkorrak jota egoten ziran lbon eta Abel egunero.

Matrailak gorri-gorri, nai aña esne sopa artu ondoren, berez oera joateko be almenik ez eben eukiten.

Egun aretan, baña, eguardian bezin tente ta bizi ebiltzan.

Sekula baiño alegin geiago biarduan amak lotara bialdu nairik, baña ez egogon orretarako.

Gabeko amabai inguru izango ziran, nekez eta erregez oean sartu orduko. Ta an be erretolika txolifnean, kontu kontari.

Amak, tartean tartean, deadar egiten outsen: bai! Egon ixilik, ume moko arraiuok! Noiz lo egiteko asmoa daukazeu pongolito demon-tresenok?

Orduan, izara azpian buruak estaldu ta alkarri atzeak emonda etza-ten ziran. Ta amasa astundu orduko, izara pixkat zabaldu ta barriro ere, txil-mixil, ekin jardunean.

—Ikusi makusi.

—Zer ikusi?

—Ikusten dot, ikusten dot... E.

—E? Benetan? E?

—Bai.

—E... ezpanak.

—Ez.

—Eduz.

—Nun ikusten dozu ba?

—Or-Jesusen jayotzan.

—Ori olgetako edurra dala ez al dakizu?

—E... e... ezula.

—Eztulik ikusten dozu kokolo orrek?

—E... e... ezterriko zulia.

—Bai zera bai! Gaur olgetan zabilzt, ez? Orrela igartea pentsaten dozu?

—E... e... Zeuk ba dakizu ala?

—Esatea nai?

—Egon pixkat. E... e... Erregeak!!

—Nun ikusten dozu, ba?

Ori esan eta indar batek jota leiz, biyak salto baten oetik urten ta amaren gelatik zear, arin balkoira.

Amak zarataka: Nora zoaze, baña, ume sapuok alakuok? Eskoba kirtanak itz egitea nai dozue?

Amaren jardunei jaramon barik, leyoiko kristaletako iruntza ken-duz, orra mutilak zur, kalean zerbait ikusi edo igarteko garrez.

Orretan susmatu orduko, balkoian lo egon txakurra, ateari arpaka ta sakadaka asi zan.

Balkoiko atea dardaraka ikusi ebenean ta zarakat entzun, zer izan leikean konturatu barik, itsu-mustuan, amaz estuka, bidean biltzaten zituen ate, aulki ta tresna guztiak jo ta zapalduaz, gure mutilak arin be arin euren kuartora. Bai laster oean sartu ta izara artean euren buruak eskatatu be, amasari eutsi-ezinez eta tuku-tuku bixkorrez kililduta.

Amak, ori ikusi ta zirikalari, deiez: Nora duaz eurok zoro zoro? Nora ain gangar? Ez dozue esaten, ba, aitaik eta amak ipintzen ditue-zala erregealuk? Zer ditozue orain? Orrez gahera, igarten ba zaitue lorik egin ez nairik zabilztela, arrikatzik be ez dautzue botako. Ez olgetan ibilli. Entzun ondo zer ditozuedan. Sutako autsik be ez.

Ez zan geiago mor morrik eta barriketarik entzun, ez orixe. Eta laster amesetan lo ziran biak.

Urregu goizean, euren erregealuk eskuetan artuta, arro ziran kalean biak, egunak argi egin orduko.

Bateri erakutsi ta bestenak ikusi, bitsetan eta adurretan ziarduen umeok. Martin'ek, ikusi ta bereala bota outsen. Ene! Maspeneko den-dan erositako erregealuk!

—Baita zera bai!

—Ezotz?

—Guzurrik esaten ez etorri. Oneik lakuak izango ziran, baña oneik ez!

—Orretan? Nalago neuke Anton ementxe ba lego, berak be ikusi zituzalako.

—Zer esan nai dozu orrekini? Aitaik eta amak botatutakak dirala?

—Zeinek bai? Zerk zuri, Meltziorre! Beti beti «O mutil tonto, jateko pronto»?

—Ori amari esan! Atzaparra mixkatan gagozalakun? Geuk sen-tidu erregeak balkola zabaltzen dai! Ez al da egia. Abel!

A. ZUBIKARAI

TXERTOIA

Eguberri zoriontsu ta Urteberri ugaria, opa dizu.
Eta eguberri garaletako eskeintzen dizu:

BERRI-BERRIA: ARTE POPULAR VASCO

Eglea: Luis Pedro Peña Santiago.
Oso bikain argitaraldia, 500 marrazki baino gehiagokin apaindua.
Prezioa: 250 pezeta.

BERRI-BERRIA: ANTIXON VALVERDE (DISKA)

Abesten du: Utsa - Kontxesi-ri - Peru Gurea - Goizean goizik.
Prezioa: 115 pezeta.

OLERKIAK (B. DECHEPARE)

(Euskeraz idatzitako lehen liburua)

Prezioa: 190 pezeta.

Bialduko ditugu gastuak libre dirala.

ESKATZEKO TXARTELA

Artu nai nuke () () ()

Izen-abizenak () () ()

Etxe-bizitza () () () Erria () () ()

TXERTOIA (Liburu-diskak)

Armerias Enparantza, 4 - Apart. 767 - Urrut. 1-91-36

DONOSTIA

Uhin Berri

1964-1969 Bilduma

Euskal olerkarien
antolojia.Juan San Martinek
antolatua.

AGIRRE, José M.ª.	IZTUETA, Paulo.
ALFARO, Gexan.	KINTANA, Frantzisko Jabier.
ARESTI, Gabriel.	LANDART, Daniel.
ARZE, José Antonio.	LASA, Amaya.
AZURMENDI, Jose.	LASA, Mikel.
BILBAO, Antonio.	LEKUONA, Julian.
ERDOZAINCY-ETCART, Manex	LETE, Xabier.
ERRAMUPEZ, Patxika.	MUJICA, Luis M.ª.
ETXAMENDI, Eñaut.	PAGOLA, Manex.
GARIN, Martin.	SAIZARBITORIA, Ramon.
INTXAUSTI, Joseba.	SARASOLA, Beñat.
INTXAUSTI, Mikel A.	SARASOLA, Ibon.
IRIGARAY, José Angel.	

Liburu-dendetan edo Argitaraldi ontan:

SOCIEDAD GUIPUZCOANA DE EDICIONES
Y PUBLICACIONES, S. A.

Museo de San Telmo - DONOSTIA.

LA GRAN ENCICLOPEDIA VASCA'k

Bere lan-leku berriak oraintxe irikiko ditu,
SERRANO ANGUITA, 4, azpian
 Ori dala-ta, bere bezero ta erosle guziei bere
ARGITALBEN UGARIA ESKEINTZEN DIE

Revista Internacional de Estudios Vascos

izeneko aldizkariaren 26 liburu

Oietan dezu euskal-jakintzarik aundiena ta sakonena ta osoena.

Jakintsurik ezagunen gorespenak irabazi ditu aldizkari onek.

Oni goraka atera dira urteotan Menendez y Pelayo zana, Fausto Arozena ta Camille Jullian eta abar.

Sal-neurria, aurrez ordainduta ... 16.000'00 pezeta
 Argitaldu ondoren ordaindu ezker ... 20.000'00 »

AZKUEREN IDAZLANAK

"Diccionario Vasco-Castellano-Francés" - (2 liburu)
 Sal-neurria ... 1.600 pezeta

"MORFOLOGIA" - (3 liburu)
 Sal-neurria ... 1.000 »

"Cancionero popular vasco"
 2 liburu. Sal-neurria ... 1.600 »
 Euskal-Jakintzaren 3 liburu garratzitsuenak,
 Euskal-Idazle erraldoi AZKUE Aundiak
 egiñak.

-Historia de Navarra-

Moret eta Aleson idazle argiak idatzia

Kondaire-zale nagusi askoren iritzi, Moret izan da Naparrako Kondairan, idazlerik entzutetsuena, zintzoena ta jantziarena Naparroa-ko kon-tuetan. Berak astiroen eta luzeen eman digu ango gertarien berri.

6 liburu. Sal-neurria ... 5.000 pezeta

Diccionario Histórico Geográfico Ilustrado del País Vasco

Liburu ontan dituzu Euskalerriko uri, erri ta auzoetako berriak, 2.000-tik gora dira guziak, beren kondaira, seme-alaba argi, jeografi-xeetasun eta abar...

2 liburu. Sal-neurria ... 1.600 pezeta

Noticia de las cosas memorables de Guipúzcoa

Pablo Gorosabel'ek egiña

Bigarren argitalbena. Lenengo argitalbena egin ezker 67 urte joan dira, Oraingo au lengoa edertuagotuaz dator Euskalerrri Zareko grabatu askorekin eta seme argien berriekin jantzia.

3 liburu ... 2.400 pezeta

Historia general del Señorío de Vizcaya

E. J. LABAYRU'k idatzia

Bizkai-ko kondairarik osoena, aundiena, jakintzaz jantziarena ta zeatzena.

8 liburu. Sal-neurria ... 6.400 pezeta.

Liburu auen berri zeatzena ta osoena jakin nai nuke:

Eskura ordaintzeko liburu auek artu nai nituzke: ☐

Epeka ordaintzeko liburu auek nai nituzke: ☐

LA GRAN ENCICLOPEDIA VASCA

Serrano Anguita, 4-bajo

Urrutizkiña 23895

DONOSTIA

GAZTEAK ETA ORAINGO MUSIKA

Orain egun batzuek dirala, izketan gengoan musika edo soinuaren gara beran. Ta batez be txarto esan dakeen musika modernoarekin ere bai. Izketaren berean, detalle edo txeken batzuek argitu ziran, ta uste genduaiez, Euskalerria jakin barrean egola ona emen txekenok.

MUSIKA MODERNOA EDO ORAINGO ALDEKO

Izen onekin darabiltz gaurko soinuak geienak. Txarrak eta onak, melodiak edo eresi sinetik, ritmiko edo eres-neurkadak, sinfonikak eta abar. Batez be, gaur egiten dirazan soinu guztiak oraingo aldekoak edo modernak dira. Soinu guztiak beren aldia deuko. Gaurkoak barriz gorakadarrak audientia beragan dau, instrumentuen larrantz eta koloridogaitik. Orainsurarte ang'io, pasodoble ta baltseok entzuten genduezan banda edo eres-taldearekin. Orain ostera, bateriak eta ereskin elektronikak beste era bat ere artu dabe. Onetxeak izan da ezbardintasuna, soinu ritmiko melodiaren gaitetik ta ipini dalako.

ZERGAIK ETA ZERTZUKAITIK

Fox daritosen soinu astroak, erdikoak eta ariñak, ritmikoan alle batzuek daukiez. Balada deritosen aireak ere bai. Inglaterratik ere ba da torkigu zer edo zer; ta baltzaren jazz ta espirituren soinuetaik allerik geiena datorru.

Erri batetik besterakoan joan etorriaren erretzasunak, irratik, telebiziak, difuzino edo izuri zabaltzaileak. ta soinu ta disko zabaltzailek izan dira aite ritmiko oneri bidea zabaldutakoak.

Ja zigur, gizon bakoitzaren interes bideak, guzien interesakandik dau etorria, ta interes ixilekoak edo pribaduak baño lanagotik dirade. Erriari komundiu jakola edo ezjakola soinu ori? edo baita ere adituen egiten diola? Ona emen, agiri agrian batzuen interesak, erriaren interesakandik, izil interesak baño leenagotik.

INDERRA

Soinu ritmiko ta beste askoren inderra, or emen eta an, kapitalismo ta imperialismoaren bitartez sartu dira, dirua euren jaungoikotat dabelako. Olan, erri guztiaren soinuak galduko dira, beste bide bat artzen espada. Eskupeko soborno edo koipekeri asko egiten dabe, soinu zabaltzaile askogaz, soinu oheagoak alderatuz, ritmikoari ospe uandia emon dagian. Diru asko emoten da, gero, asko ta askoz be geiago artzeko asmoan. Gizontasuna, ez begi inok zaldu iru lau txinegaitik, ta jarraitu beyo norberen erriko soinuari.

IZEN BATZUEK

Jakiña dan lez, soinu ritmikoari musika moderna berari bakarrik deritxoe, baña izen ori txarto esanda dago. Beste batzuek musika POP deritxoe; baña izen orrek popular esan nai dau. Beste izen bat dago, TOPS edo musika de aije, euskeraz, izenik egokiena uuxe da. Gorapen soinu.

ONDASUNAK ETA TXARKERIA

Errespeto edo itzal aundikoak dira, gogo onak eta txarrak egon bearrak, jaungoikotari nai dauanararte. Emen deu gizonak beren askatasuna. Gogo txarra gaitzotkeriz bada eskutatu egin bear da. Sarri askotan, gizonak ez dakigu ondatsuna ta txarkeria ezagutzen, ta ori dala medio asko erratu egiten da munduan.

GAZTE BATZUEK

Protesta, Yeye, Ipi izenakin dabiliz gaste batzuek. Au olan dala ta, gauza arrizko bat jazo san New York-en. Ogetabi urteko mutil gaste batek dei bat egin eutsori olako gasteiari. Eun da piku milla uste eben batuko zirala; ta gaste orren deira, seireun milla agertu ziran, rantxo batean. Janaria, elikoteroatik botaten eutsien (uste dot gudarien artekoak) iru eguean egon zirako, ta gosez il baño len. Arritueko gauzatzu bat jazo zala inoen. Inok ez eblaz erse ostu inguru guztiari. Batzar ori ona izango zan drogak erretan joan azpaziran. Olako eragipena zergaitik? Alkartasunaren aurka ete egozan gazteak eta beste olako gaste batzuek ere? Eretxiz, olako gazteak, bakardadea nai dau; baña batera egoten dira. Alkartasunaren ardua gabeak dira; ta ez dira berakin zaitzen ta ere gaizkirik egiten ta zaindu ere ez. Sarritan barriz ez dabe artu emondu narrik. Ermitaioetan daukugula arantzua? ez. Progreso lar aron doalako baño.

DUDARIK...

Jakiña dan gaste asko ule lizeakaz, garbitasun barik ta erropa edo era askotako jantziak dabilzazala. Ia dudarik esan leike gizaio ta txi-roen protesta bat dala jaunkien ta aberatsen agindua ta esanari jaramonik egin ezagaitik. Olako gazteak, euren erako bizitza ta jakikoak egiten dituz; ta sarri askotan biolentziaren areriyok dira, ta lan edo bear txarre-na eren ta makina gitiene ere bai. Bakea nai due ta batez be gogagaren be-kea ta amets galdiztan dira pistik, arbolak, mendiak, zerua, txarrak eta abar-eri begituri. Euren ustea, soinu ta dantzetan dagoala euren nai guztia. Baña gure ustez, dantza orraiten ez dabe topatuko euren gogo ta ba-rruko bake ta nasaitasuna. Beste gaste batzuek ere badagoz "hijos de papá y mamá" deritxoenak. Aberatsak diruz ta pobre gogoz. Gaste zintzoak, olako gazteakaitik galtzean dira, ze jakiña dan lez auxe esaten da zintzoekin: Gogo sendo bai, baña gorpuzta oso makala; ta len esan dogun lez nork da ki ona ta txarra nor dagoen? Zer emongo dautsee drogakin dabilzanak gu-re munduari? Ziur seguruz gauza onik ez. Utzi beio gazteak olako gauzari ta jarraitu, beio bide zuzenari gaitzaren oherako.

JOSE MARIANO BARRENETXEA

Euskal Gabon-Kanta bat Iruñian txalotua

Gabon-Kanta leiketan, Iruñia'n geien txalotua. «BASO-BIDEAN» abestia izan zan. Alakorik! Txalo ta txalo ixiltzeke luzaroan. Musika-tillea, Migel Azpiazu izan da ita giza. Iruñia Iruñia'k moldatu ditu. Bi gazteok «Contrapunto» talde-koak dira.

Lendik ere izan zuan Iruñia'k beste abesti bat, Lazkano'rena, be-re itzez jantzia. Kanta arek «Bear-tsuaren Gabon-abestia» zuan izena ta «Contrapunto» taldeak berak abestu zuan. Beesten artean azken-salarioño iritzi ziran abesti orre-kin. Beste zein Iruñia ta Azpiazu «NERE SENDIAREN GABON-KANTA»'rekin agertu ziran. Kan-tarizat aspeltiar bat artu zuten: Xabier Madina. Au, lendik leiketa batzuetan tartetua zan. Azkenera-te eraman zuan bere abestia ta bi-garren lekua eman zioten; baina io zizkioten txaloak, inori baiño geiago irau zuten. Min ematekoa izan da, azken-saloko abestekin ateratu dute diskoa, arreta aundi gabe atera dutela ikustea. Ona emen irugarren aldiz agertu dute Gabon-abesti onen itzak:

BASO-BIDEAN

Mara-mara, txuri-txuri
elur-lapatxa;
lurra apalindu nalan
eroritzen da.
Zer gertatzen da
gizonen artean?
Betetzera dijoaz
igargien itzak.

Belengo bidean.

Andre Maria
ez lorik egin
pagadian;
basa-txakurrak
eramango zaitu,
uso gaztea
zeralakoan. Makurtuak dira
zugazti eta belarrak
zure bidean.
Zeletan lur-bira guztia!
Ibilli azkar, San Jose Aita;
ez galdu denborik basoetan.
Belengo seaskan
amabietan,
Jaungoiko txikia
jaioko da.
Geldi-geldi xotil-xotil,
gure abereak.
Ernai esnatu aigu
txori-abia.
Ixillik dago errekararen ura.
—Aurki izango da
Gabon ikusgai!
Belengo bidean
Andre Maria,
ez lorik egin pagadian.
Basa-txakurrak eramango zaitu
uso gaztea zeralakoan.
Makurtuak dira zugazti eta
belarrak zure bidean.
Zeletan lur-bira guztia!
Ibilli azkar, San Jose Aita
ez galdu denborik basoetan.
Belengo seaskan, amabietan,
Jainko txikia jaioko da.
Madina Xabier gazteak, ederki

eraman zuan azkeneraño bere abestia.



XABIER MEDINA

ELIZ-ONDOAN

(6'garren orrialdetik)

Baño dena ez dugu amaitu oraindik. Berriz ere laster gaitzute zuen atetan. Euskaldun guztiak fitxero bat bete nahian gaitzite eta ortarako zuen laguntza behar. Uste dugu berriz ere ondo artuko gaitzutela zuen etxetan. Milla esker, aurrez, zuen arrera onagatik.

GAZTEEN MEZA

Gazteek badituzte beren jolasak, beren lanak, beren batzarrak. Beren Meza ere behar dute. Jakiña, Meza ori euskeraz eta erderaz izango da. Astero izango da bat, Lenengo, Azilaren 8-an, larunbatez, arratsaldeko 8-etan. Eta orrela, larunbetea. Tokia: Reparadoretako eliztxoa, S. Antonio, 12.

EUSKAL ALBABETIZAZIOA


Ori zer dan? Ba, euskaldunel euskeraz irakurtzen eta idazten irakastea. Zenbat, Gasteiz-en, euskeraz irakurtzen eta idazten ez dakiten Euskaldunak?

Aurten, euskal alfabetizazio kursillo bat eratu nahi dugu. Irakaslea bada, ikasleak behar ditugu. Eman zure izena. Jarri artu-emanetan Eusko OSA apazarekin. Bere zuzenbidea: Tomas de Zumárraga, 22-1.º. Tfnoa: 228827.

AUR TXIKIENTZAK ESKOLA

Aur txikien leku berri bat irliko da Gasteiz-en, ikasgalak euskeraz eta erderaz ikasteko.

Bi urte t'erditik sei urte arteraño nexka-mutikozentzat. Aurteri beste era batera erakutsi bear zaio, berakin lan eginaz, beti zerbaiten billa edo zerbait arkitzen ari dirala. Era berri onek txikien burua argitzen du, gero ikastaro nagusietan arkituko dituen galak obeto ulertu, ikasi ta sakontzeko.



ECHABE

ETXABE' REN

Mueble - Etxea

Fuero'en Enparantza

Urrutizkifak: 84 10 78
84 11 21

ZARAUTZ



FUNCOR, S.C.I.

BENETAKO BASERRITARRAK BEAR DITUTZEN MAKINAK

BIRRIINTZALLE - ERROTA - NAASTALE
ZERRA - URAGA - URASKA

EUROPA'KO AUERRERALDEUNI'K ONENAK.
AMENGO NEKAZARIENTZAT.

ADI TA OROI EZAZU

FUNCOR

AZKAR BEZIN ONDO

E L O R R I O

Viscaya, 114

GAZTEENTZAKO DEIA

ARGITALDARI BIKAINA, EUSKAL-LIBURURIK EDERRENEKIN, EUSKAL-JAKIN-

TZA ZABALTZEKO NESKA-MUTIL GAZTEAK BEAR DITUGU.

Euskal-gairik onenak eskeintzen zaizkitzue, ederki ordainduak. Lan atsegiña.

Ortan lan egin-zale zeratenok, agertu etxe ontara:

Serrano Anguita, 4 — Beean.

DONOSTIA — Urtarrillaren 7'an eta 8'an.

erri arazoetan gorengo gu



Zerugo Arian, Azaroaren 30an, Artetxe jaunak pentsalar, gorengo idazlea dionku, ZUBIYAK, idatziburuak in egi biribillak beti lez eta nolako trebetasuna daukagun diru arazoetan eta apostuetan eta kultura arazoari ezepea eta erri arazoetan etalgula berdin jasotzen eta arpegi bi bear deguzala alde onetan. Alde ontan uts eginduela derizkiot eta uts au aldatzen beste barik dau gai nere idazkiak. Mundu guzian ez da izan erririk legegintzan irabazi dugunik ezta ingles guziak bere Carla Magna ta Habes Corpus'kin.

Orrek guziok aspiratu da egiz zapaldu ditut gure fuero edo Lege Zaararak.

Urte batzuk dira, guda ostein, aurkitu nintzala Begokako eleiz atzean, zutik arituta neure aurrean ninduan etxe apalaren idazkunaz: «Casa de la República» eta orduan inarduen erortzen eleiza atzeko plaza zabaltzearen. Ara emen zelako iziltasun osoan eta ardurarik gutxielakin, jendea konturatu bage, aintzat aurtu barik,

dearduen Euskalerriaren erakutsirik ederrena desgiten, munduaren legegintzan.

Ango ixiltasun urratzerik ez, deardarka asteko erarik, nere asarrea erakusteko txorakeri utsa irudi zitzaidan eta biotzkada gogorak nire begiak busti zituan. An ziran Republica de Begonia, Abando eta abar euren txikitasunean erakutsirik aundiena munduko aundienari. Burak euren eskubidea esakiarre edo disociarse beste inguruko batu edo aldendu, estadorik irasi bage ba Nietzschek dion bezela.

Gure Lege Zarrari gorasarra egiteko aurkeztu ziran Konbentsionko diputadu edo ordezkariak. Ez da esan bearrik ze erakutsi eukan, aldi artan, prantzez iraultzairen biotz biotzean egindako gormenak.

Lege gizonak edo letraduak ezgeranak, sakabanatuta artu bear doguz gure argunmetuak edo puntuak geure asertoak egizatzeko. Li-bururik egokiela izan nuen esku-etan, Espiritu de los Pueros, Elorri-eta-tar Tomas, berai bermetotarra, Madril'eko Ikastetxe Nagusiko Irakaslea gañera, lege gizonen irakaslea ba. Gure Lege Zarrak dituan maila-rik ezin leteke aurkitu eta gaitz da gañera gaurko mentalidadeko letraduak be gure legen gurena artzerik.

Arazo onek jarri diodaz Madrid-dar letraduak be ta euraak esan zidatan ba aurretik kontzearen, emoiuzgu bada nure eleyes sabias-en barri: Orta or neri gogorra etorri zidatenak beste batzun artean. Gaurko aundikien titulu utsaren

buruz: Edozein bizkaitarrek erail lezake ta izango da milia... ta goiagoz maravedisekin saritua eta esidesforaba oraindiko 1200 edo geiagokin reinzidente zalaz. Ikarturik, begira zidatan. Euren erantzuna: Aundiki titulua erabiltearen gizon bat erail etaer aitzalea gañera saritua? Orrelakorik inoiz ez degu entzun. Bafia zuek orren ondorenk ez dozuez aztertu, azaletik begiratu bano. Ondorenaren barri zuek aurrekoakoengandik dakizuez artu zituezan zigortetarik. Oritik bear izan dozue feudalismoa edo jopitza gogorra gizaasunik bage ta aurrea emoteko eskubiderik gabe gabe. Nora jo erekurso barik.

Ara beste bat; «Ezin leike legepean jarri bizkaitar bat iru bidar lenago aurkeztu erazo bage Gernika'ko Zugatzaren aurrean, «In frangitiz» aurkitu ezaudate. Irugarren dela artu bano len errudunak iges egiteko aukera zuen. Ori zan gizonari nola emoten zien latsa edo errespetua. Habes Corpus'ek barritiz espetean sartu bano len aundiki edo gotzai edo para del reino ba ziran aztertuten ziran.

Tronkal eskubidearen gafean au esan niotzen: Etxe ta larraldeak seme nagusiaren eskuetara erortzen ziran derrigorrez. Barre egin zuen ostetra be. Lege orren bearez zuen ondorena zan aundikien lur jabe-tasuna. Zuen pronbintzi osoak amar tituloren jabetza dute eta beste guziak abarazoren biziera gosekiaz zigorturik. Lur gozan nekezariak eta euren lurrak bizkor ioiazan aundikien eskuetara ta gañera neurritz ordaindu bage. Gure errian jauregi ta kastilloak beratuak ziran feudalismoaren bildur-rez. Oraindiko Loyola'ko jauregiak aldean ditut erriaren egitadak eura-k aspiratzeko. Batek erantzun zidan: Bai orrek dira eleyes sabias, gure torre ta jauregiak ezira izan erri xea menperatzeko baizik. Oraindiko entzuten da gure be aldeko nekezariaren artean «el que tiene la tierra tiene al hombre».

Beti izan da euskaldun federu» da alan da be ezta ikusi eleiz gizonik legeari oztoporik jartzen ta bai bestera oalkutzaileak ari ziran gizonaren gogoa aldatzen auteskunda egunean euran botrik etuten oitatz artzen, gipuzkoarren artean beintzat.

Euskaltzaleori dagokigunez orain gogoratzen naiz Romanones kondeak bere «Memorias» idazkian idatzirikio atal bat berak euskeraz argitaldu zituan lerro batzukaitik. Aldi artan beste aldera igesian icala Añamendi'ko tontorrean muga erdian Euskalerriko erdibiko emen bere azken itzak deardarek esan entzezan euskal gudiariari: Egiz, benetan nauzute zuen erregetzat, zuen fueroen eta eleizaren gordetzalatzat... eta abar. Gudi-riak ikilik ziran ezer esan barik aren Don Karlos'en itzaldi sutsu-aren aurrean eta orduan bere aldamenean egoan jeneral Iturbidei zuzendu zion galdera au: Onek ez-tabe erantzunik nire itzari. Orduan Iturbidek erantzun zion: Onek ez-daukuz ezer uertzen, da orduan berak egin eutsen galdera au euskeraz:


—Mutillak, zer nai dozute zuek.

—Bakea nai degu jauna.


Galdera ta erantzunak euskeraz jarriak dakarzik idatzi orrek.

Baliteke gure gatzedi aurreratzaleak, progresista erakoak, gure pitxirik ederrenaren gafietik pasatzea gure asabaren erriazintza gogoratu gabe. Egoki derizkiot aurrerakuntza bideari jarraitzea, ba gaurko gizailega da eraberritu edo il, begiratu atzeko aldeari gure Lege Zaararak erriazintzarako ta giza-tasunerako neurri gabeko aunditasuna ta biotzean josi ta erebilli bear doguz guziok. Es dira utsak Iparragirre'ren abestiko azken itzak EMAN DA ZABAL ZAZU MUNDUAN FRUTUA; TA GURETZAT bakarrik, ez lur bira osoarantzat.

KOSNOAGA



Gernikako Arbola zaarra.



Gernikako eliza nagusia.

liburu bi

Jon Etxaide, gure eskritoretan apaiñenetakoa. Gutxiak dakite er-biltzen euskera Etxaide-k bezin jantzi ta egoki.

Lunean daki gañera. Lan bikaiñak benetan bereak. Goitik oso jotzen dio gaiari. Goitikako lana orain atera berria duan Etxaun-en bertsoak gipuzkeraz.

Gauza batek batez ere eman dit atentzia liburu au ikustean.

Bere paretan beste bat agertu da Bayonan. Prantsezez. Bere egillia Jean Haritschelhar jauna. Liburariaren azalean auxe dago titulu bezela: Le poète souletin Pierre Topet-Etchechun. Contribution à l'étude de la poésie populaire basque du XIX siècle.

Euskeraz esan nai du: Pierre Topet-Etxaun, Zuberoako olerkaria. Emeretzigarren mendean euskerazko olerki errikoia ikasteko getgarria.

Haritschelhar jauna beste aldeko Baigorriko semea da. Bayonan, Euskaldun Museoren Zuzendaria. Baita profesore Burdeos-ko Unibersidadean.

Etxaide jaunak goitik orain ere, eta bide batez sakon artu badu bere esturiora, Haritschelhar jaunak ere berdin jardun dio gaiari. Irakasiemaiu, doctor izateko aukeratu dio gaitzat Etxaun. Eta ikasgai au dala bitarteko doctor titulua eman dute.

«Zer esan nai du onek? Batera dudarik ez dauka neretzat.

Gaurko gizona bere zuzartarretario dijoa. Erbeste gaiontzeko kulturak alde batera utzi, eta sorteriari dagokion guzia nai luke ikasi ta ondo sakondu.

Ikasi ta barren-barrenario sakondu. Jon Etxaide-k —eta Haritschelhar jaunak zer esanik ez— gaia barrendu duten bano geiago inuindik ere ezin liteke.

Urte biyan edo lauan egindako liburuak ez dira abetxek, ez orixe. Bañan eldu dagiotan Etxaide-k euskeraz ateratako liburu bikaiñari. «Nola ibili dala donostiar eskritore ospatsua geldiro-geldiro Etxaun-en pausetan».

Ezda inuindik egun bitan irakurri al-litekean liburu. Mapa bi dakarzi irakurlearentzat lagungarri. Bata Zuberoakoa, bestea Barkojekoa, Etxaun-en sorteri parajetako.

Mapa abetxek ikustatzen denpora luzean egondu naiz eta egongo naiz oraindik.

Emen gure alde inguruko izenak ikusi ditut bietan. Bada nere errian, Izarraitzepeko sakontxo gain batean erritar danak ezagutzen duten baserri bat. Abitain. Abitain-en dago erriko kanposantua.

Zuberoako punta-puntan Abitain bat ikusi det. Andik ez urruti, illarre. Itharte bat ere apuntatu du Etxaide-k. Itharte bait du bere bigarren opeidion. Aranbaltze, Errekandua, Bidegañea, Mendartia, Egogoyenea, Maisteria, Aritzabaleta, mik al dakit euskeraz zenbat izen! Den-denak euskel kutsua dutenak.

Igande arratsaldetarako ba daukat pixkatarako Etxaideren liburu berriakin. Haritschelharre-na izango det lagungarri. Ba daukate biak nundik irakurtzekoa.

Nere Euskalerria eta nere erriakin batera bertako gizonak obeto ezagutzen asko lagunduko didatela iruditzen zait.

OARRA.—Artikulo au entregatzeko momentu-momentuan izan det albista. Etxaide-ri saritu egin diotela bere liburu Durangon. Lenengo saria. Ez nai batere arritzen. Biotzez nere lagun ona dan Joan Etxaide-ri zoronik beroena.